

Jon ELIZETXE
Xalto Sariketan
irabazle
→ 44

Eguberriak

Gehigarri berezia → 27-38

IGANTZI → 14

Abesbatzen emanaldi
berezia abenduaren 19an

DONEZTEBE → 21

Euskaraz Bai Eguna
abenduaren 19an

GOIZUETA → 40

Ospitale Zaharrea 6
etxebizitza eginen dira

BAZTAN → 46

Gas Naturala 1.600
herritarren eskura

Horra, horra gure Olentzero...

Urte garaiari dagozkion ospakizunak ate-joka ditugu honezkero. Hainbat eta hainbat herritarrentzat, ordea, enpresetan indarrean dauden lan erregulazioen ondorioz, zorion giroan baino kezka beteriko testuinguruan joanen dira aurten.



ELKARRIZKETA → 3

Alkoholaren kontsumoa
kontrolatzeko kanpaina
Leitzaldean



Gizarte Zerbitzuen
Mankomunitateak kan-
paina bereziaren berri
eman digu Teresa
Martinez hezitzaileak.

ERREPORTAJEA → 4-5

20 urte bete ditu IKak



IKAren 20. urteurrena-
ren harira, Bortziriak,
Malerreka eta Leitzal-
deko euskaltegiara
jo dugu.

HERRI KIROLAK → 56

Esther Iriarte Euskal
Herriko txapeldun



Emakumezkoen
Euskal Herriko Txinga
Txapelketa irabazi du
narbonartarrak.



ORDOKI

a l t z a r i a k



ERAKUSKETA: Bittiria 26 · SALTOKIA: Plaza Zaharra 27 LESAKA · Tel: 948 63 77 80
ZORIONAK ETA URTEBERRI ON!!

JOXEINA ETXEBERRIA

01:00 9€

ABENDUAK
19
LABURBATA

EGUBERRIEGUNA

01:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ABENDUAK
25
OSTIRALA

KRISI-KONTRAKOGAUA

01:00 - 02:00 Dohainik eta 2x1
02:00etatik aintzinerá 9€ eta kontsumizio bat dohainik 03:30ak arte

ABENDUAK
26
LABURBATA

URTEZAHARGAUA

02:00 9€ Kontsumizio bat dohainik 04:00ak arte

ABENDUAK
31
OSTEGUNA


WWW.LURELIZONDO.COM



ETAURTARRILAN...
GOSE+KOMANDOKASTAÑA 5
RAIMUNDO AMADOR 16

Alkoholemian positibo ematea zein erraza den konturatzeko eta ondotik kotxea hartzeak izan dezakeen eraginaz kontzientziazteko kanpaina berezia abiatuko du

Leitzaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Arano, Areso, Goizueta eta Leitzan. Poltsikoko egutegiak banatuko dira lau herrietan, besteak beste, alkoholemian

positibo zenbatekin ematen den eta horren ondorioak zenbaterainokoak diren adieraziz. Kanpainaren xehetasunak ezagutzeko Teresa Martinez hezitzailearekin egon gara.

Teresa MARTINEZ | Leitzaldeko Prebentzio Programako hezitzailea

«Arrisku kasuetan inprobisatzeak ondorio txarrak ekar ditzake»

G. PIKABEA | LEITZALDEA

Zertan datza kanpaina?

Alkoholemian positibo ematea oso erraza dela konturatzeko nahi dugu jendea, ongi zaudela pentsatu arren, egiaz autoa hartzeko ongi ez zaudela jabetzea. Modu batera edo bestera, urtero landu dugu gai hau, baina aurtengoa berezia izango da. Horretarako, poltsikoko egutegiak banatuko ditugu taberna, jatetxe, alkohola kontsumitzen den lokal eta elkarteetan, osasun etxetan eta autoeskoletan.

Aurtengo kanpaina laguntzaile berezi batekin egin duzu, ezta?

Bai, hala da. Laguntzaile hori herriko gazte bat da. Alkoholemian positibo eman zuen eta isun penalarri izotzen, eta horren bidez, komunitatearentzat zerbitzu bat egin behar du. Gurekin jarri zen kontaktuan eta bera etorri zenean bururatu zitzaigun kanpaina. Hasieran, beste kanpainak aztertzea izan zen bere lana, eta hori guztia egin ondotik, bien artean erabaki dugu nola bideratu. Elkarlanean prestatu dugu eta oso esperientzia positibo izan da.

Gai honekin arazo handia al dago Leitzaldean?

Egia esan, ez dugu datu estatistikorik lortzerik izan. Eskatu genituen baina ez dizkigute eman. Baina



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Teresa Martinez hezitzaileak gidatu du kanpaina.

gure ustez, jendeak oraindik ere kotxea hartzen du edanda ere. Jendeak kontzientzia haundiagoa dauka, baina hobetzen saiatu behar dugu.

Nori zuzendua dago?

18 urtetik gorako gazte eta helduei, edateko ohitura dutenei eta orokorrean, gida baimena duten guztiei, izan emakume edo izan gizonezko.

Marrakki berezia aukeratu duzue: kalibre bat gaztaina neurtzen. Eta horrek 0,25 markatzen du. Zergatik hori?

0,25 delako alkoholemian

TASAREN ARABERA
«Hemengo hitzak erabili ditugu alkoholemia mailaren arabera, nola sentitzen garen adierazteko. 'Punttuen eon', tasa 0 eta 0,24 artean badago; 0,25 eta 0,59 artean badago, 'ikuttue' eta 0,60tik gora 'auntzetue'».

eman daitekeen gehieneko tasa. Hortik gora positibo da eta horrek isunak dakartza. Gure asmoa jendeak kontsumoa neurtzea da, eta horretarako kalibrea eta gaztaina erabili ditugu. Kalibrea neurtzeko erabiltzen den tresna da, eta kasu honetan, gaztaina da neurtu beharrekoa –gaztelaniazko *castaña*–, kontsumoa, alegia.

Eta horrekin batera mezua ere luzatu duzue...

Pentsatu, imaginatu eta antolatzeke mezua da. Arriskuak daudenean in-

probisatzeak ondorio txarrak ekar ditzake. Jendeak kotxea hartu behar badu, aldeztatik zenbat edango duen pentsatzea nahi dugu. Horretarako zenbatekin ematen dizun positibo eta zein arrisku dauden jokoan jakin behar da. Bakoitzak egin behar du bere balorazioa. «Punttuen eon», «ikuttue» eta «auntzetue» ageri dira egutegian...

Hemengo gazte batekin ari ginela aprobetxatuz, hemengo hitzak erabili ditugu alkoholemia mailaren arabera, nola sentitzen garen adierazteko. «Punttuen eon», tasa 0 eta 0,24 artean badago; 0,25 eta 0,59 artean badago, «ikuttue» eta honekin batera, gida baimena galdu eta isun ekonomikoa; eta 0,60tik gora «auntzetue». Maila honetan isun penalarri jartzen dute, hau da, ekonomikoa, komunitatean egin-dako zerbitzua edo kartzela zigorra, gidatzeko baimena galtzea eta ikastaroa egitea.

Noiz hasi eta bukatuko da kanpaina?

Egutegiak abenduko azken astean banatuko ditugu, baina informazioa lehenagotik emanen da. Gehienbat Eguberriekin batera egiten dugu kanpaina, egun horietan gehiago edaten delako. Gainera, Eguberrietan askok kotxea hartzen dute festara joateko.

EUSKARA → IKA EUSKALTEGIAK 20 URTE

20 urte euskara ikasi eta hobetu nahi dutenei bidea errazten

Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldean lau egoitza eta 160 ikasle ditu gaur egun IKA euskaltegiak

«20 urte, euskara errazago egiten». Halaxe egin du IKA euskaltegiak 1989az geroztik, zailtasunei aitzin egin eta «Euskal Herri osoa euskalduntzea eta alfabetatzeko helburuarekin» lan egin. AEKren

barne funtzionamenduan eztabaidak izan zirenean sortu zen IKA, Araban eta Nafarroan. Eta gure eskualdean lau egoitza ditu: Lesakan, Beran, Donezteben eta Leitzan.



TTIPI-TTAPA | ESKUALDEA

Duela 20 urte egin zituen bere lehenbiziko harat-honata IKA euskaltegiak. Ordurako lanean ari zen AEK euskaltegiaren barne funtzionamenduan desadostasun batzuk sortu ziren, eta bat ez etortze horretan, Nafarroako eta Arabako zenbait euskaltegi IKA osatu zuten. Hala, 1989az geroztik, bi euskaltegiak euren ibilbidea egin dute.

Zatiketa horretan, gure eskualdeko euskaltegi gehienek IKArekin aldeko apustua egin zuten, Baztangoak salbu. Gaur egun, bada, IKAk lau egoitza dituguean: bi Bortzirietan, Lesakan eta Beran; bakarra Malerrekan, Donezteben, eta bertzea Leitzan.

MATXINBELTZENEA PROIEKTUA LESAKAN

Horretaz gain, IKAk Matxinbeltzenea proiektua du Lesakan. Bertan, euskara barnete-

giak egiten dira. Inguru euskalduna aprobetxatuz, 15 eguneko egonaldiak prestatzen dira, egun osoa euskaraz egiten dutenez anitz hobetzen dute, batez ere, mintzamina. Hasieran urte guztian egiten ziren barnetegiak, baina 1995etik aitzinera udan bertzerik ez. Nafarroan kokatua dagoen aitzakiarekin Eusko Jaurlaritzak dirulaguntza udara mugatu zuen eta Nafarroako Gobernuaren laguntza hain eskasa izanik, ezinezkoa izan zelako jarraitzea. Gaur egun, uda bakoitzean 200en bat ikasle izaten dira udako barnetegietan.

HASIERA ETA EGUNGO EGOERA

20 urteotan gorabeherak izan dira, jakina. Une gozoagoak eta zailagoak; denetarik izan dute. Halere, aitzinera egin dute eta hori bera ez da gutti. Hasierako urteak, bertze edozeinentzat bezala, ez

ziren xamurrak izan, batez ere, arazo ekonomikoak zirela-eta; hala ere, politikak eta ilusioz beteak izan ziren; izan ere, orduan ilusioa eta beharra ere handiak zirenez, oztopo guztien gainetik aitzinera jo zuten.

Euskaltegi gehien antzera, IKArekin zailtasunik handiena ekonomiko

HELDUAK ERREFERENTE
«Ematen du hurrek eta gazteek ikasita euskara salbatu dugula eta ez gara ohartzeko erreferenteak behar dituztela, eta erreferenteak helduok garela»

IKA euskaltegia

HELBURUA
«IKArekin helburu nagusia Euskal Herrian eta munduan jende euskalduna lortzea da»

IKA euskaltegia

mikoa izan da beti, Nafarroan bereziki. Dirulaguntzak ez dira inoiz beharren pare egon, gainera azken urteotan are larriagoa da egoera. Mendialdean (Bortziriak, Malerreka eta Leitzaldean) Mankomunitateek bideratutako dirulaguntzak hagitz inportanteak izan dira; hala ere, ez nahikoak. Nafarroan euskaltegiaren egoera ekonomikoa oro har, itogarria da; are gehiago euskaltegiaren kasuan.

Ikasleak, berriz, orain baino gehiago ziren, orduan zonalde guztian 300 bat ikasle zituzten, euskara ikasteko desio, grina eta gogo gehiago baitzegoen. Alfabetatzeko jende gehiago zuten. Helduagoak. Beren garaian, eskolan, euskara ikasteko inolako aukera izan ez zutenak.

Lehen ilusio handia, jende gogotsua eta gure hizkuntza maitatu eta bereganatzeko nahi izugarria zen. Urte

hauetan D ereduak nagusi denez, jende anitz eskolatik euskalduntuta ateratzen da eta ikasteko motibazioak aldatzen joan dira. Garai hartan, batez ere, motibazio ideologikoa izaten zen, «euskara ikasi edo hobetu nahi dut euskalduna naizelako»; gerora motibazio praktikoa ere indar pixka bat hartzen joan dira: titulua ateratzeko, lanerako behar delako, eta abar.

Orain arteko balantzea ezin da txarra izan IKArekin arduradunen usuez, «beti ere, kontuan izan behar baita ez gara gu geu bakarrik munduan, eta gizarteak berak dituen gorabehera guztiak izan ditugula. Ondorio bat ateratzeko, uste dugu dagoeneko ezagutzen gaituztela izanen litzateke eta zertan ari garen eta zein den gure helburua ere garbi dagoela».

Gaur egungo egoera gizarteak berak due-



UTZITAKO ARGAZKIA
Malerreka eta Bortzirietako
euskaltegietako irakasle batzuk.

na bezalako delat erran liteke, «krisian gaude», diote IKAtik; hau da, krisi ekonomikoaz gain, balore-krisiaren baitan ere badaudela. «Garai batean ez bezala, badirudi euskara haurrek eta gazteek normalizatuko dutela ikasketak euskaraz egiten ari direlako. Ematen du horiek ikasita euskara salbatu dugula eta ez gara ohartzen erreferenteak behar dituztela, eta erreferenteak helduok gara. Horregatik da hain garrantzitsua helduen artean euskara ez dakitenek ikastea; eta mintzatzen dakitenek, erabiltzeaz gain, alfabetatzea eta hobetzea».

HELBURUAK

IKaren helburu nagusia Euskal Herrian eta munduan jende euskalduna lortzea da. Horretarako, eskaintza zabala dute: euskalduntze maila guztiak, alfabetatzea, EGA ikas-

taroak, orain autoikas-kuntza (on-line) ikastaroak ere bai. Ordutegi aukera guztiak ematen dituzte, erritmo ezberdinak, matrikula prezioak ere ahalik eta merkeen... erraztasunak ematen saiatzen dira.

Hala ere, ikasgelako lana eskolak ematea baino zabalagoa dela uste dute: ikasleen arteko harremanak bideratzea eta sendotzea, taldean giro egokia sortzea, ikasleen motibazioa indartzea, ikasleen jarraipena egitea, eskola dinamikoak eta atseginak lortzen ahalagintzea, euskararen erabilera sustatzea, eta abar...

Beraz, lan horretan segitzeko asmoa dute, «maiz baldintza eskasak izanda ere, eta lehen bezala, zoritxarrez, euskara ikasteko, borondateak beharrak baino gehiago agintzen badu ere, borondate hori baldin badago, IKAn asetzen saiatuko gara».

GOIZ MENDI TALDEA DONE JAKUE BIDEAN



UTZITAKO ARGAZKIA
Leitzako
euskaltegiko irakasleak.

8 irakasle eta 160 ikasle

Gaur egun, Bera, Doneztebe, Leitzeta eta Lesakako IKaren euskaltegiek 160 bat ikasle dituzte eta irakasleak, berriz, lanaldi osoan bost eta orduka hiru ari dira lanean denetara.

Ikasleak euskara ikasten hastearren arazoakiferenteak dira pertsonaren arabera: batzuk titulua lortzea dute helburu, berteak euskalduntzeko gogoa... Eta horixe da, hain zuzen, sortzez Cintruénigokoa baina 1975az geroztik Lesakan bizi den **Mertxe De Benito** ikaslearen kasua. «Nahi nuelako hasi nintzen. Lesakan bizi eta hemengo giroa euskalduna delako, eta nafarra naizelako», dio. 20 urte pasatu dira euskara ikasten hasi zenetik, eta nahiz eta urte batzuez alde batera utzia eduki duen, maila ona lortua du. Halere, badu bere hitzetan zer hobetua eta horretan inguruak izan du bere ustez eragina:

«zoritxarrez gure inguruan ez da beharrezkoa euskaraz jakitea. Hemen go jendeari edukazio txarrekoa iruditzen zaio euskaraz ez dakienari euskaraz egitea, eta hortaz, gaztelaniaz egiten du. Hori guretzat kaltegarria da».

EGA ateratzeko, eta bide batez, euskara lantzeko helburuarekin hasi zen euskaltegian **Luis Aranburu** leitzarra. Euskaldun zaharra da bera, baina joan den urtean euskaltegian hasi zenetik, «asko» hobetu duela dago, nahiz eta oraindik ba omen duen zer hobetua. Euskal hiztunei eta ez dakitenei euskaltegiara joateko gonbitea ere luzatu die: «euskaraz egitea ongi dago, baina euskaraz ongi egitea hobeki dago. Hori da helburua».

Jokin Duke, berriz, betidanik euskara ikasi nahi izan duela dago baina Doneztebe euskaltegian orain dela zortzi urte. Vianakoa da jaiotzez, eta euskara ikasten hutsetik hastea gogorra egin arren, bere ustez «gero eta hobeki» moldatzen da. Euskaraz ez dakitenei mezua ere igorri die: «hasieran oso zaila eta gogorra da euskara ikastea, baina ikastaroak pasatuta ohartzen zara eginahalak merezi duela».



ESALDIA

«Euskaraz egitea ongi dago, baina euskaraz ongi egitea hobeki. Hori da helburua»

Luis ARANBURU
Leitzako euskara ikaslea



ESALDIA

«Zoritxarrez gure inguruan ez da beharrezkoa euskaraz jakitea»

Mertxe DE BENITO
Bortzirietako euskara ikaslea

«Hasieran zaila da baina ikastaroak pasatuta ohartzen zara eginahalak merezi duela».

ESALDIA

«Hasieran zaila da baina ikastaroak pasatuta ohartzen zara eginahalak merezi duela»

Jokin DUKE
Malerrekako euskara ikaslea



Nire txanda
Koro IRATZOKI

Gure xaharrak

Duela gutti arte gure familietako pertsona baliotsuenak etxeko zaharrenak ziren, aitaxi-amatxi batez ere. Zaharrenek atxikitzen zizuten familiako oroipenak, gizartearen tradizioak, herriaren jakinduria, ixtorioen memoria... urteak pasatu ahala guztiaren transmisioa egiten ziguten. Beraiek gabe, gure familietako xaharrak gabe, gu ez ginateteke gaur egun garenak izanen, gure herriak ez ziren horrelakoak izanen, ezta gure sinismenak ere, gure kantuak, gure usaiak... Gaur egun, berriz, hortxe ditugu baztertuak. Kasu ttikia egiten da beren hitzei. Nahiago dugu aise telebistak dioena, edo Interneten dabilena, edo rebistek bildutakoak... Eta horrek hainbat aldaketa ekarri ditu: gure haurrek gehiago dakite Halloween-i buruz familiako gauzei buruz baino; gure gaztetxoek ote dakite zer den euskaldun baten hitza; gure gizartean baloratuago da telebistako edozeinek dioena aitaxiren kontrabandoko ixtorioak baino... Ai ama!, ongi ari ote gara?

Haurrek gehiago dakite Halloween-i buruz familiako gauzei buruz baino

Ezpala

Aitor AROTZENA

Fokua non, albistearen han

Albistearen aukeratzeko den momentutik objektibotasuna galtzen dela aipatzen dute kazetaritza fakultatean. Berri hau bai, hori ez, honi garrantzi gehiago eman, horri labur bat, dena subjektiboa da. Politikan ere halatsu. Leitzak kazetari eta politiko guzien fokua bildu zituen azaroaren 29ko goizaldeko gertakariaren atzean ETA zegoela aipatu zutenean. Eta gero? Ederra eguraldia!

Nabarmentzekoak



Juana IRIGOIEN
100 urteko erratzuarra

1909 urte berezia izan zen Baztanen. Ehun urte bete dituen hirugarren emakumea izan da Erratzuko Bullunbako Juana Irigoien Etxeberria. 3 seme-alaba, 9 biloba eta 14 birbiloba ditu.



Jon ELIZETXE
Xalto Sariko txapelduna

Joan den urtean Maria-no Izeta Saria irabazi ondok, Gartzaingo bertsolariak aurten Xalto Saria eskuratu du Goizuetan azaroaren 28an, 14 bertsolari gazteren artean gailenduta.



Antton ESPELOSIN
Sunbillako kirolzalea

Azken 60 urteotan egin diren aikora apustuak eta txapelketak bilduz liburua argitaratu du. Lehendik ere Ramon Latasa zenari buruzko liburua argitaratu zuen 2005ean.

Atzera begira → 1991.12.19 / TTIPI-TTAPA 76. zbk



Aimar Olaizola «deskubritu» zuen TTIPI-TTAPAK orain 18 urte

Zenbat zientio elkarrizketa egin ote ditu Aimar Olaizola pilotari goizuetarrak? Ba, horien artean lehenbizikoa TTIPI-TTAPARI eskaini zion 1991n. Hamabi urte bete berriak zituela dagoeneko 25 txapel jantziak zituela ageri zen elkarrizketan. Orduan ere egunero aritzen zen pilotan Aimar mutikoa, «edozein momentu aprobeztatzen dut hortarako, errekreoak, ilunabarrak, oporrak edo asteburuak». Bere adineko gehienek bezala Aimarrek bere idoloak bazituen: «Beloki ikaragarri gustatzen zait eta Eugi ere bai. Futbolzalea eta Osasunaren aldekoa naizenez Urban ere nire idoloetako bat da, eta nola ez, Joxe Mari Bakero».



Argitaratzailea Ttipi-Ttapa Fundazioa • Egoitza Anduettzeta, 12 • 31760 ETXALAR

Tel. (+34) 948 63 54 58 • Faxa (+34) 948 63 54 57 • info@ttipi.net

Zuzendaria Aitor Arotzena **Erredaktore burua** Gurutze Pikabea **Publizitatea** Usoa Vicente, Kulturkari SLU **Berriemakileak** Esteban Arotzena, Juana Mari Sazar, Kontxi Klaber, Ainhoa, Aranbxa eta Maider Ansa, Asier Imaz, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Iratzoki, Nerea Aitzuri, Joseba Urrotz, Joseba Olagarai, Nerea Mitxelorena, Maite Oteiza, Jaione Otxandorena, Xan Harriague, Markel Lizasoain, Eneko Mitxeo, Fermin Etxekolonea, Fernando Etxeberria...

Fundazioaren Presidentea Pello Apezetxea **Kudeatzailea** Joxemanuel Irigoien **Administrazioa** Amaia Goia

Lege Gordailua NA-1324/85 • ISSN 1578-4673 • **Tirada** 6.000 ale

Erakunde laguntzaileak Etxalar, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Sara eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkarteak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea

2009ko harpidetza sariak

Hego Euskal Herria36€	Ipar Euskal Herria54€	Amerika eta Australia120€
Espainia36€	Europa54€	Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza30€



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



Euskarabideak diruz lagundutako aldizkaria



Kolaborazioak

Goizuetako Santa Maria Magdalena ermita

Jose Javier ETXEBERRIA (Goizueta)

Goizuetan, etxeak eta lekuak nahiko ongi mantendu dute aspaldiko itxura eta ize-na. Aukera polita dugu herrian barrena bueltatxo bat emanez aspaldiko kontu eta gertaera zaharrak beren inguru giroan imajinatzeko. Garai bateko gizon-emakumeak beren eginbehar eta buruaustekin gure herrietan nola moldatuko ziren pentsatzeak herriko txokoak, harriak eta gure begien aurrean azaltzen diren gauz xeheenak interes berezia hartzen dute. Madalenako baserria eta ermita 1500.eko urtearen inguruan azaltzen dira liburuetan. Orduetik XIX. menderaino kutsuko gaitzen eritegi eta baseliza eginbeharretan erabili izan dira.

«Baserria eta ermita XIX. menderaino kutsuko gaitzen eritegi eta baseliza eginbeharretan erabili izan dira»

Etxea eta ermita bat-bestearen ondoan, herriko sarreran daude, aparte xamar. Ospitalen eta lazaretoen ohizko zaindariak diren Santa Maria Magdalenak eta San Lazarok ize-na ematen diote ermita eta baserriari. Oraindik Hernani aldeko Madalenako baserriaren puskari ospitala deitzen diote. Madalenen erligio, osasun eta batzar-areto serbitzuak egin izan dira aspalditik. Kutsuzko gaitzen eta txiroen ospitalea eta otoitz lekua izan zen eta hauetako batzuk han bertan lurperatuak izan ziren. Goizuetako eliza isten denean Madalenako baselizan egiten dira elizkizunak eta Aste Santuko joan eta etorriko prozesioak haraxe egiten dira. Ermitaren egoera txarra ikusirik zaharberritzeko lan handiak hasi dira dagoeneko. Baselizaren eraikin osoa, lau pareta ez ezik, berrituko da eta 252.425 euroko kostua izango du. Erretaula eta bere irudiak ere moldatuko dira eta horrek berriz 36.000 euroko kostua dakar. Ermitaren lurzoruan zenduen hausterrek ehortzeko nitxoak egingo dira eta han lurperatu ahal izango dira. Datorren urteko uztailaren 22rako, Magdalena egunarako, dena bukatuta egotea eta bereziki ospatu nahi da. Obra eder honetan lagundu nahi duenak Nafarroako Kutxan "Zuk erabaki, zuk aukeratu" kontu korrontaren bidez egin dezake.



Zorioneko urtarrilaren 7a

Joseba URKIOLA

Urtarrilak 7, astelehena, iritsi zaio Martini lanera joateko eguna. Berriro ere motxila, kaskoa, ogitartekoa eta erreminten kaxa urdina hartu eta eguna etxetik kanpo pasatzera. Ahanzturan geratu zaizkio; San Tomas eguneko txistor janak eragindako tripako mina, Inozente Egunean lagunei eginiko broma barkaezinak eta Errege Egunean pastelak sortutako hortzetako mina.

Aste Sainduak bitarte, beste txango bat hasiko du. Azken hamabost egunetakoa, amets bat izan da. Hasieran eder moduan aurkeztu zitzaiona eta orain, beltza baino ilunago gorpuzten dena. Banketxera joan eta azkenaldi honetan lagun izan duen makinak, 4.000 euro gastatu dituela esan dio. Farmaziara joan eta irailetik bisitatu gabe zeukan objektu zuriak, hamazazpi kilo gehiago dela ohartarazi du.

Nahiago zukeen gaurkoan esnatu ez eta oraindak, Gabon Gaueko abestiak behin eta berriz abesten ariko balitz. Gogorra da benetan, urte guztian zehar deitoratu eta kritikatu duen guztia, hamabost egunetan bere egin duela ohartzea. Min ematen dio, egunero-egunero, hilaren amaieran 888 euro irabazteko, goizeko bostetan jaiki ohi dela gogoratzeak. Bihotzerrea ezartzen dio, beste urte betez, Eguberrietako ideologoek kontzientzia xurgatu diotela onartzea. Hori gutxi balitz, karrikak dieta egiteko produktuez eta 24 ordutan kredituak ematen dituzten enpresen iragarkiez josita daude.

Martini gertatu zaiona, hurrengo urtean zuri gertatzea nahi ez baduzu, badakizu zer egin. Egunero legez, irabaztea hainbeste kostatzen den gauza hori, behar duzunerako bakarra erabili. Ahaztu entendimenduz jantzitako ikazkina eta Euskal Herriko herri guztietan momentu berean egotea lortzen duen hiruko xelebraz. Zure esku dago. Urtero; urtarrilaren 7a burukominarekin, bihotzerrea-ekin eta poltsikoa zuloz beteta has dezakeenaren gomendioa da.

«Badakizu zer egin: Egunero legez, irabaztea hainbeste kostatzen den gauza hori, behar duzunerako bakarra erabili. Ahaztu entendimenduz jantzitako ikazkina eta Euskal Herriko herri guztietan momentu berean egotea lortzen duen hiruko xelebraz. Zure esku dago»

Irakurleak mintzo

Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari

[Oskar Zapata \(Topagunea\)](#)
[Garbiñe Petriati \(Euskarazko hedabideak\)](#)
[Mikel Buldain \(NafarPress\)](#)

Azaroaren 24ko datarekin Euskarabideako zuzendari-kudeatzaile Xabier Azanzak ondoko adierazpena egin zuen Xorroxin Irratian, euskarazko hedabideetarako laguntzen desblokeoa dela eta:

“Telefonoz Topaguneko zuzendariari deitu diot orain gutxi berri txarrrak emateko, Atzo arte deialdia aterako dela esan diegu bai hedabideetako ordezkarietara baita medioetan galdera egin digutenei. Horretarako behar den Gobernu Akordioa sinatuko zela esan dugu. Eta gaur jakin dut atzoko Gobernu saioan ez zutela onartu diru laguntza ateratzeko behar zen akordioa. Zergatik ez zen onartu oraindik ez dakidala aitortu behar dut. Kontua da epeaz hain estu ibilita oso beltza ikusten dudala. Akaso hurrengo bileran...ba ez dakit”.

Hitz horiei erantzunez, duela urtebetetik hona Euskarabidearekin eta Azanza jaunarekin gaia lantzen gabiltzan euskarazko hedabideen ordezkariok honako hau adierazi nahi dugu gure aldetik:

1. Urte osoa jiraka eta bueltaka ibili ostean, ezin dugu sinetsi uztailean agindutako

240.000 euroak ez ditzutela banatuko.

2. Kasu eta une honetan Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari dagokio Gobernu konbentzitzeko edo presionatzeko ardura.

3. Diru laguntza deialdia ateratzeko erabakia oraingoz Nafarroako Gobernuaren eskuetan dagoen heinean, eta egoeraren larritasuna kontuan hartuz, Euskarabideako zuzendari-kudeatzaileari eskatzen diogu, Gobernu konbentzitzeko eta presionatzeko eduki ditzaketen bide guztiak erabili ditzala, bere kargua mahai gainean jartzeraino beharrezkoa izanez gero. Horrez gain, eta Azanza jaunak egoera erogarri hau desblokeatzen asmatuko duela koan, agerian utzi nahi dugu beste behin ere gure prestutasuna 2.010. urtean euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko elkarlanean segitzeko.

Ura? Pitxerrean, dudarik gabe! kanpaina Bortzirietan, Malerrekan eta Baztanen. Ohar argigarria

[Bortzirietako Hiri Hondakinen Mankomunitatea](#)

Ura? Pitxerrean, dudarik gabe! kanpaina dela eta argitu nahi du-

gu Ecoembes enpresak ez duela diruz lagundu kanpaina hori, komunikabideetan bestela erran baguen ere.

Nolanahi ere, azpimarratu nahi dugu kanpaina horren helburua ostalaritzan sortzen diren hondakinak murriztea dela, prebentzioak lehentasuna baitu hondakinak kudeatzeko planetan, Hondakinen Europar Zuzentarau berriaren erranean.

Pantxitoren oroimenez

[GOIZ MENDI taldea](#)

Pantxito Amaiurko Kallonean jaio zen orain dela 75 urte. 17 urterekin Kaliforniara joan zen artzain, 8 urte igaroz. Honara etorri eta aste batzuk sendeen artean gozaturik, berriz Ameriketara beste bost urte egonez. Bertsozalea zen eta behin aipatu zigun nola bere barkadadean, ardi tartean zegoenean askotan tristuraz gogoratzen ituela bertso hauek: *“Ameriketara joan nintzen utzirik ama, anai-arrebak eta familia dana, egitea nahi nuelako desio nuena, geroztik triste zebilen aynere barrena”*. Herrira itzuli eta Paularekin ezkondu zen eta biek San Franciscon beste hamar urte igaro zituzten. Hemen Arizkungo Kallonean eman ditzute azkenengo urteak biziazen sua eta argia itzali arte. Taldeko batzuk orain dela hamar

urte ezagutu genuen Pantxito Arkupeak taldearen bilera batean. Baztango Santiagorako bidea antolatu zen eta bost etapa eginda talde berri bat sortu genuen, Goiz Mendi izenarekin. Santiagorako bidea bi aldiz egin genuen eta Pantxito sasoi batean zegoen eta aurrean ibiltzen zen. Hortik aparte hilero mendiko irteerak antolatzen genituen. Horrela hamar urte daramagu. Orain dela hilabete batzuk Pantxito makaltzen hasi zen eta taldea Lezeta ostatuan berarekin elkartu ginen otordu bat eginez. Nabaria zen bere osasunaren ahultasuna. Ospitalean aste batzuk igarota azaroaren 27an egur esan zizun betirako.

Hitz gutxitan laburtu daiteke Pantxitoren bizia, izaera eta nortasuna. Zoragarria da guk daukagun irudia: gizon apala, gozoa, atsegina, lagun zintzoa, bihotz onekoa. Ez genion sekula hitz txarrik entzun, alderantziz beti umore onarekin elkarrizketan, paseoan edo jokuan. Zoritxarrez minbizi mardikatuak bere hatz-parretan harrapatu zuen eta egun gutxitan menperatu bere gorputza, baina ez bere nortasun apala eta atsegina, eta isil isilik joan da.

Taldearen eredu eta ispilu izango zara Pantxito. Lagun handi bat galdu dugu, baina abestiak dion bezala, zeru goian izar berri bat piztu da gure bidea argituz. Zure laguntzarekin gure azken urteak

elkarturik emango ditugu. Paula zuretzat hitz bi une txar honetan. Zure barruan bi sentimendu edukiko dituzu: alde batetik pena, tristura eta sufrimentua zure zati bat apurtu delako eta horrek barrua erretzen du eta normala denez negarra dakar ondorioz. Beste aldetik atsedena eta pakea sentituko dituzu zure biziazen zati handi bat berari eman diozulako, batez ere sufritzen ikusi duzunean. Bere ondoan egon zara gau eta egun, etxean eta Iruñean. Ezin da gehiago eskatu. Harro senti zaitez egin behar den guztia egin duzulako. Gorde bere irudi ospetsu eta gozoa. Orain etapa berri bat dator. Ez zaizu lagunik faltako. Zuk besteen alde egingdako lanak ezagunak dira. Zure anai-arrebak eta beste senideak lekuko dira eta nola ez gure talde osoa eta hainbat herriko lagunak. Ez dizugu bakarrrik utziko. Ez zaitugu huts egingo. Denon izenean eskerrik beroenak bihotzez. Pantxito: ez adiorik ez agurrik, gero arte bakarrrik.



IRAKURLEAK MINTZO Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 24 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. TTIPI-TTAPAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen-deiturak, herria eta harremanetarako telefona. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.

e-Posta:

info@ttipi.net

Posta:

Anduetzeta, 12 31760 ETXALAR

Tel.:

948 63 54 58

Faxa:

948 63 54 57



Bota bertsoa
Diego RIAÑO (Leitza)

Urte bukaerako gauzak

Ekonomian aldakuntza ta piratak rona prestatzen disparte Guardia Zibilak be(raie)n buruai dispartzen gasoila gora tren txu-txu hori... ta jendea gosez hiltzen gauza gehiegi aldatzen dira baina pentsatzera goazen gaitzerdi hori nonbaitean gu asko ez bagara aldatzen.

Hamabi hile hamabi mahatsa ta hamabi ezkilen kolpea hori omen da urte berriari iepa, kaixo esatea urte polit bat amesten dugu ta zorionez betea gaur egun zaila da hori baino aditu entzule maitea pentsatu gure esku dagola hori hala izatea.

11 galdera labur

Sokatiran, txingekin, lasto altxatzen eta botatzen, lasterka, mendian... Zer eginen zenuke kirolik gabe?

Seguraski gaizki bizi, ez nintzateke gustura geldituko.

Denetan goian egoteko sekretua zein da?

Ni ez nago goian, gustura ibiltzen naizen horietan aritzen naiz, zure buruari erronka egin.

Kirolari eta kamionero lanak bateagarriak dira?

Ordutegi aldetik deserosoa da, ezin da nahi adina kirol egin, baina nolabait ere moldatzen gara.

Hainbertze kirolen artean, bat aukeratzekotan, zein?

Zaila da, ez nuke aukeratu. **Markarik egitea**



Oskar TELLETXEA → Igantziko kirolaria

gustatuko litzaizuke?

Ez, eginak ditudan errekorretara berriaz ailegatzea gustatuko litzaizuke. **Beti Gazterekin munduko txapel-dun sokatiran. Eta orain Amaiurrekin Italiara txapelaren bila?**

Itxaropen horrekin joan behar da, baina hagitz zaila da talde hasi berri batentzat hori lortzea. Beraz, ahal den hobekiena pasatu eta ea gustura gelditzen garen.

Sokatiran, nesketan, Amaiur edo Beti Gazte favorito?

Badaezpada ere, nahiago dut galdera horri ez erantzun –iriz–.

Nondik datorkio Igantziri herri-kiroletarako afizioa?

Tamalez, orain gure artean ez dau den bi lagun, Migel Mari Etxarte eta Luis Mari Zelaia, eta Eduardo Eurgi hasi ziren eta euren bidez.

Kirolaz aparte, baduzu afiziorik?

Astirik ez dut...

Besta egiteko, Sanmigelak edo inauteriak nahiago?

Sanmigelak. Inauterietan, beti edo aunitzetan sokatiran aritu naiz eta inauteriak aparte utzi behar.

Zer du Igantzirik bertze herriek ez dutena?

Bertze herrien berririk ez dut, eta Igantzikoaren berri bai. Bakoitzak bere xarma izanen du eta ni Igantzikoarekin gustura nago.

Alberto RETEGI
abokatu
abokatu
© 948 630 763 - Alzate, 17 - BERA

Lanchas
PARKETAK - TARIMAK
KUTXILLATZEA ETA BERMIZATZEA
ESTALDURA OROKORRAK
Bera - Tfnoa: 948 630 735 - 407 406 781

ANTZUZELAS
S.L.
Tel: 948 631 317
HARRO NATURALA
Abarretan eta Leitzaen
Antzuzelasko Harro Naturala
Zuzendaria: KIDEMAR ZOLA
Irungo errepide
BERA

MARTIKO
Martiko
Pol. Zaien, s/n.
31780 Bera, Nafarroa
Tel: 948 625018 Fax: 948 625036
www.martiko.com
Antzuzelasko edozein eta orotatik

DENDA
ASTELAREN ETXERAKO
8.30etik
12.30era
14.30etik
17.00etara

Martikorekin
zu zeu
sukaldari.

SEAT
ZOANSA
HYUNDAI
Audi
MARKA GUZIEK KONPONKETA
Banara, 2 - Alkaiaga Industrialdea
LESAKA (sarrera Beratik)
Tel: 948 625 555 - Faxa: 948 625 505

LANA

LAN ERREGULAZIOA FUNBERAN → MOBILIZAZIOAK

400 lagun bildu ditu Funberako langileek deitutako manifestazioak

Zazpi alkatek bilera eskatu diote Roig kontseilariari

TTIPI-TTAPA

400 bat lagunek bat egin zuten abenduaren 5ean Funberako langileek deitutako manifestazioarekin. Langileak mugagabeko greban daude abenduaren 2az gerostik eta hainbat mobilizazio egin dituzte egun hauetan: kotxe karabana Malerreka eta Bortzrietan abenduaren 3an, bilera alkateekin abenduaren 4an eta manifestazioa abenduaren 5ean.

Gure etorkizunaren alde, Funberan despidorik ez! zioen pankartaren gibeletik joan ziren Langileen Batzordeko langileak (ELAK 7 ordezkari ditu eta LABek 2), baita Bera, Arantza, Etxalar, Sunbilla eta Donamariako alkateak ere. «Hemen bizi, hemen lan egin», «Borroka da bide bakarra» edo «Despidorik ez» bezalako oihuak aditu ziren Berako karriketan.

55 KALERATZE

Felix Espelosin ELAko delegatuak jasotako elkartasuna eskertu zuen eta enpresaren erregulazio txostena ez onartzeko eskatu zion Nafarroako Gobernuari. Enpresak 55 kaleratze proposatu ditu eta geldituko lirakeen 87 langileek 117 eguneko espediente tenporala izanen lukete 2010ean. Espelosinek gogoratu zuenez, «berriki arte lantegiak 202



ARGAZKIAK: TTIPI-TTAPA

Abenduaren 5ean manifestazio jendetsua izan zen Beran. Bezperan, berriz, Bidasoaldeko alkateekin bildu ziren langileak.

langile zituen, baina 60 langile bota ondotik, orain bertze 55 bota nahi dituzte. Ezin dugu onartu, gezurra da Funberak etorkizunik izan dezakeenik 87 langilerekin». Dabit Iturria LABeko ordezkariak, enpresaren proposamena kritikatu zuen, «aurrejubilazioak eta baja inzentibatuak eskaintzen baititu, baina beti ere langileok EREa onartzen badugu eta ho-

ri txantaje hutsa da».

Enpresa batzordeko kideek gogoratu zuten azken bortz urteotan «11 milioi euroko irabaziak izan dituela Funberak, eta oraindik ez du balantze negatiborik aurkeztu».

ALKATEEN KONPROMISOA

Hilaren 4an, Bidasoaldeko zazpi alkaterekin bildu ziren langileak Berako Herriko Etxean, euren egoeraren berri emateko.

Hala, Urrotz, Donamaria, Bera, Etxalar, Igantzi, Arantza eta Sunbilla alkateek bilera eskatuko diote Jose Maria Roig Nafarroako Gobernu Lan kontseilariari.

Bertzalde, abenduaren 9an 55 panpin zintziklatu zituzten Berako karriketan –kaleratu nahi diren langileak adina eta hilaren 10ean, Lan Sailaren aitzinean kontzentrazioa egin zuten.

BERA

Ekitaldiak antolatu ditu Larun-Haizpek Eguberrietarako

TTIPI-TTAPA | BERA

Hainbat ekimen paratu ditu martxan Larun-Haizpe Berako Merkatarien Elkartek Eguberriei begira. Abenduaren 3an, adibidez, Eguberrietako I. Balkoi Lehiaketa abiatu zuen, hilaren 30era bitarte iraunen duena. Auzo bakoitzeko lau lehenbiziko sari banatuko dira –Altzate, Legia, Berako Plaza eta Agerra– eta horrez gain, Berako Gabon etxe ikusgarriari sari berezia emanen zaio. Epai-mahai batek izendatuko ditu irabazleak, eta sariak abenduaren 31n emanen dira, 19:30ean Gure Txokoa elkartean. Bertzalde, 100 euroko 15 bale zozketatuko ditu abenduaren 5etik urtarrilaren 5era elkarteko establezimenduetan erosten duten bezeroen artean. Zozketa urtarrilaren 7an egingen da. 3-11 urte bitarteko gaztetxoentzat, berriz, abenduaren 26tik 30era jolastokia paratuko da Eztegarra frontoian, 11:30etik 13:30era eta 15:30etik 19:30era. Abenduaren 24an, 31n eta urtarrilaren 5ean karrikak girotuko dituztela ere iragarri dute merkatariak.



UDALA → KIROLDEGIKO ITXITURA EZTABAIDAN

Kiroldegi aitzineko itxitura zabalik dago eskola ordutik kanpo

Udalak bere gain hartu du erantzukizun zibila

TTIPI-TTAPA

Herritarren artean eta Udalean eztabaida dezente eragin duen kontua izan da kiroldegia-
ren aitzineko itxitura berria. Institutuko patioa zabalik edo itxita egon behar den erabakitzeak eragin ditu tirabirak. Baina azaroaren 24az geroztik, eskola ordutan itxita dago eta eskola ordutik kanpo irekita.

Azaroaren 19ko udalbatzarren erabaki zuen hori Udalak. Marisol Taberna Aralarko zinegotziak Toki-Ona Institututik bidalitako konpromiso orria sinatzea proposatu zuen, behin behineko soluzio bezala. Idatzi horren arabera, eskola orduetatik kanpo irekia dagoenean Udalaren gain egonen da erantzukizun zibila. Eta Toki-Ona Institutuaren idatzia sinatzearen alde agertu ziren EAko hiru, EAJko bi eta Aralarko bi zinegotziak. Alkatea eta bere taldeko hiru zinegotziak, aldez, kontra.

Aitzinerago onartzea da behin betiko hiztarmena.



ARGAZKIAK: JON DE LA CRUZ

Haur eta gaztetxoek euskal dantza ikastaroa urtarriletik aitzinera

Haur eta gaztetxoentzako euskal dantza ikastaroa antolatu du Gure Txokoa Dantza Taldeak. Urte berriarekin batera paratuko du martxan, eta beti bezala, abuztua bitarte izanen da. Astean ordubete inguruko saioak izanen dira, eta ordutegiak irakasle eta ikasleen artean adostuko dira. 2004an jaiotakoak izanen dira ikastaroan hasiko diren gazteenak. Izena emateko, larunbat honetan, abenduak 19, lamotenean egonen dira Dantza Taldekoak, 11:00etatik 13:00etara. Orduan agertu ezin duenak telefono edo helbide hauetara deitu edo idatz dezake: 647 56 94 01 (Jon), edo guretxokoadantza@gmail.com. Halere, gauzak errazte aldera, larunbatean agertzeko eskatu dute.

Labiaga Ikastola saritua

Nafarroako Unibertsitate Publikoan, *Somos Comenius* (Comenius gara) sariak banatu ziren azaroaren 26an Nafarroako hainbat

ikastetxeren artean. Sarria jaso zuen ikastetxetako bat Labiaga Ikastola izan zen, Euro Traditions proiektuarekin. Ikastolaren izenean, Ana Artieda eta Pakea Oiarzabalek hartu zuten sa-

ria, Teresa Aranaz Nafarroako Gobernuko Hezkuntza zuzendariaren eta M^a Dolores Lopez Mollo OAPEE erakundeko Comenius-Grundtvig ataleko zuzendariaren eskutik.

FLASH

Eguberriak gainean, ohiko hitzorduak prest

Egun gutti gelditzen dira Eguberrietarako, eta beti bezala, aurten ere hainbat ospakizun izanen dira. Dena den, Eguberrien aitzinetik ere izanen dira ekitaldiak.

GITARRA ENTZUNALDIA

Bere garaian erran bezala, Josu Goiak kontzertua eskainiko du ortziral honetan, abenduak 18. 18:30ean hasiko da saioa Musika Eskolan.

EGUBERRIETAKO KONTZERTUA

Isidoro Fagoaga Udala Musika Eskolako ikasleek Eguberrietako kontzertua eskainiko dute abenduaren 21ean, 19:0etan Musika Eskolan.

TRIKITIXA ENTZUNALDIA

Abenduaren 22rako trikitixa entzunaldia antolatu du Isidoro Fagoaga Musika Eskolako. 17:30ean hasiko da Musika Eskolan.

OLENTZERO

Abenduaren 24an, Olentzero bisitan etorriko da eta ongi-etorria egiteko 17:00etan egin da hitzordua Herriko Etxeko plazan.

URTEZAHAR EGUNA

Urteko azken egunean, Glin-Glana eta Diostesalbearen txanda izanen da. 15:00etatik aitzinera, haurrak karriz-karriz ibiliko dira, *Glin-glan, glin-glan, duenak ez duenari eman* kantuarekin eskean. 18:00etan, berriaz, diostesalbea: koplakantuan ibiliko dira helduagoak herrian.

sarha
gastronomia zentroa
Ez du eraberritzea 25 baxo 1948 63 08 99
94700 berriarenarria www.sarha.net

JAKONE-GOZOTEKIA
Aldean 19. BERA 94802738

BAR Botxo OSTATU
Zalain • BERA • 948 630 052

LESAKA

UDALA → LEHEN FASEA 1,6 MILIOI EURO GOSTAKO LITZATEKE ETA %90EKO DIRULAGUNTZA IZANEN LUKE

Ur-hornidurarako konponbide bateratua ongi aztertu nahi du Udalak

Berako arazoak moldatuko lituzke, baina herriko lurretan eginen lirateke lanik gehienak

Aitor AROTZENA

Lesakako eta Berako ur-hornidurarako konponbide bateratua emateko proiektuaren lehen fasea ongi aztertu eta Toki Administrazio Departamentuarekin eztabaidatu nahi du Udalak, ahobatez hartutako erabakian. Lehen fase horretan 1.600.000 euroko inbertsioa aurrikusi zen, eta %90eko dirulaguntza jasoko litzateke. Irailaren 30ean, artean Koldo Erkizia alkate zela, eta dirulaguntza galtzeko arriskuaz ohartarazita, ebazpena eman zuen: «Nafarroako zergetan parte hartzeko Funtsak ordaintzen ez duen inbertsio zatia finantzatzeko» konpromisoa hartu zuen Udalak, beti ere udalbatzaren onespeneren mende.

Onespen hori emateko batzarrean, Juan Fermín Mitxelena adierazi zuen zuzena iraditzen zaiola Herriko Etxeak Berako ur-hornidura bermatzen laguntzea. Ha-

lere, «lan horien onuraduna Bera izanen bada ere, Lesakan egin behar ko dira lan horietako gehienak», erran zuen eta bertze aldetik, trazatua hobetu behar ko litzatekeela uste du. Horregatik, beharrezkoa jo zuen gaia Nafarroako Gobernu teknikariekin batera aztertzea. Mitxelena-ren akordio-proposamenaren arabera, Udalak bere zatia finantzatzeko konpromisoa hartuko luke, beti ere «modu proporzionalan, aurrikusitako kontsumoa aintzat hartuta». Horren aitzineatik, Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuarekin eztabaidatzea eskatu zuen, «proiektuaren alderdi tekniko eta ekonomikoak hobetzeko».

«ETORKIZUNEAN LOTUAK»

Onin taldeari ez zitzaion egokia iruditu alkatearen proposamena, «etorkizunerako lotu gaitzakeelako». Egin nahi den obra hori lehen fasea bertzerik ez da eta Toki Administrazio kontseilariak bilera batean errandakoaren arabera, gastua 5 eta 6 milioi euro inguruan ibiliko zen, guzira. Lan gehienak herriko lurretan egin, baina onuraduna Bera izanen dela ere ohartarazi zuen Udalak, Lesakak ez baitu hornidura-

arazorik. Horregatik, herri bakoitzak zer ordaindu behar ko lukeen ere galdetu zuen eta Toki Administrazio Departamentuko proiektuaren arduradunekin ere bilera eskatu zuen Udalak.

Ebazpena Udalaren onespeneren mende dagoenez, Oninek ez du uste proiektua ongi eza gutu gabe onartzeko orain presaka ibili behar denik, «lehen faseak zer hartzen duen jakin gabe, eta gainera, Udalera ailegatu den plano bakarrarekin ados ez bagaude». Iraga eta Zelako errekek ez dutela emari handirik ikusi da, eta ez da ideia ona hortik ura hartzea, erreka horiek gehiago idortuko liratekeelako. Konponbidetako bat lartza zentraletik ura hartzea izaten ahal da Oninen ustez, «horrek emari hagitz handia ez ezik, goitiago dagoenez ez litzateke ponpatu behar ko». Nabazen barna Zalain Zokora ura eramateari buruz ere zalantzak azaldu zituen Oninek.

Alkateak kontuan hartu zituen Oninen zalantzak eta Udalak ahobatez onartu zuen Nafarroako Gobernu Toki Administrazio Departamentuarekin eztabaidatzen hastea, proiektuaren alderdi tekniko eta ekonomikoak aztertzeko.



ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

Udal Musika Bandak emanaldia eskaini zuen San Frantzisko Egunean

Euriak emanaldia arkupetara eraman bazuen ere, udal musika bandak kontzertu ederra eskaini zuen San Frantzisko egunean, Mikel Iriarteren zuzendaritzapean. Jendeak txalo zaparrada ederra eskaini zien herriko musikariei.

Eguberrietan ospakizun ugari izanen dira

Abenduaren 24 eguerdiko Olentzero eta jaiotza lehiaketek gain, hainbat ekitaldi izanen dira egunotan. Abenduaren 22an, 11:30ean Eguberrietako jaialdia antolatu dute Irain eskolako ikasle eta irakasleek eta arratsalde Musika Eskolak kontzertua eskainiko du udaletxeko pleno aretoan. 27an Aiako Harrira ateraldia antolatu du Beti Gaztek eta 28an, Abesbatzak emanaldia eskainiko du Andra Mari egoitzan 17:00etan. Urtezahar egunean Diostesalbe kantatuz aterako da Abesbatza eta nahi duen guzia parte hartzera animatu nahi dute.

 **ALVARO LOPEZ**
Eskaiola, pladur lanak, sabal modularrak, tabikeak
OBRA ZIURTAGIRIAK
LESAKA • 651 704 593

BOZZ-AID
LAVANDEIA
948 637 127 • LESAKA

IRU BIDE
Energia - Auzoak
Barrioak, 3^{er} Leialde
Tel: 948 637 127

XATURETXEA
ZABAL
JATETXEA
T: 948 637 260 • LESAKA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Inoiz baino lehenago etorriko da Olentzero aurten

Herriari buelta emanen zaio 16:30etik aitzinera

Joseba eta Nerea

Inguruko herri gehien gisara, Etxalarrera ere egun-argiz etorriko da aurten Olentzero heldu den abenduaren 24an. Aitzineko urteetan ez bezala, 16:30ean aterako da kalejira txistulari, trikitilari, koruko partaide eta herritarrekin. Olentzeroren irudiak ez dira faltako eta, beti bezala, baserriar jantzita joanen da jendea. Herriari buelta emanen zaio, betiko lekuetan geldialdiak eginez Eguberrietako kantak kantatzeko. Ondotik, meza eginen da 18:30ean. Akabatzeke, luntxa emanen dute Elutsa ostatuan parte-hartzaile guztientzat.

Ela-ela eskean, aio 2009ari

Aspaldiko ohiturari segituz, herriko haurrek kantari emanen diote akabila aurtengo urteari. Abenduaren 31n etxez etxe eskean ariko dira *Ela-ela, nor da, nor da, ni naiz urteberri, zer dakartzu berri, uraren gaina, bakea eta osasuna...* abesti ezagunarekin. Baserriar jantzita, koadrilla ttikitant, urtatxak bilduko dituzte urte berria ongi hasteko.

Kontzentrazioa, presoak oroituz

Azkeneko urteetan bezala, aurten ere kontzentrazio isila eginen da abenduaren 31n Herriko Etxeko atarian. Hainbat arrazoiengatik etxetik kanpo dauden euskal presoak oroitu dituzte ilunabarreko zortzietatik aitzinera.



ARGAZKIA: XABIER BIZENTE

19 lagun aurtengo Konfirmazioan

19 lagunek egin zuten sendotza abenduaren 8an. Lau kintatakoak elkartu ziren. 19 urtekoak Julen Aranburu, Miren Bizente, Egoitz Olagarai, Hasier Iratzoki eta Sonia Gainza izan ziren. 18 urtekoak Jone Bizente, Gorka Irigoien, Iñaki Bertiz eta Andrea Elizalde. 17 urtekoak Maitane Alzuguren, Asier Zelaieta, Oihan Iparragirre, Nahia Irigoien eta Alaitz Danboriena. 16 urtekoak Leire Telletxea, Ane Ameztoi, Iñaki Tomasena, Ibai Gallardon eta Iruke Elizagoien. Meza elizkizunaren ondotik, Herriko Ostatuan egin zuten bazkaria.



ARGAZKIA: BENANTXIO ELIZAGOIEN

Iruke eta Itxaso Nafarroako Kantu Txapelketako finalean

Azaroaren 21ean Nafarroako Kantu Txapelketako finala egin zen Elizondoko Lur Dantzalekuan eta parte-hartzaileen artean bi herritar izan ziren, Bekoetxeke Iruke eta Itxaso Elizagoien. Berribeitin eskuratu zuten finalerako txartela, *Gurea* abestia kantatuz. Baleike taldearekin parte hartu zuten txapelketan eta eurek asmatutako abesti batekin atera ziren.



BORTZIRI
UNSIÓN ANAIK

Sukalderako altzariak

Ibernu etxea • LESAKA

Tel.: 948 637 266 • 607 226 891 • Fax: 948 637 511

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

- Langile autonomoak
- Nekazariak eta mendi langileak
- Nominak eta Aseguro Sozialak
- Lan-Kontrabutarako laguntzak
- Enpresa berri ezberdinen sortzea
- Diru-laguntza ezberdinak
- Kontabilitateak
- IVA eta IRPF
- Errenta aitortpenak
- Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- Bidegarritasun planak eta aurrekontuak

artekari@artekari.com

LESAKA: Siltirio, 71-behea - Tel: 948 637 050 - Fax: 948 637 050

BURELATA: La Viña, 4 - Tel: 948 133 328 - Fax: 948 133 713

IGANTZI

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Abesbatzaren emanaldi berezia eginen da larunbatean

XX. urteurreneko ospakizunei akabaila emanen die Abesbatzak

TIPI-TTAPA

Urte osoan aritu da Igantziko Abesbatza XX. urteurreneko ekitaldiak antolatzen. Gauzak hobeki zehazteko, parrokiako abesbatza soil bat izatek errepertorio zabalgago batekin eta bertze funtzionamendu batekin hasi zirela ospatzen ari dira. Hori zuzendaria aldatu zelarik gertatu zen, 1989an, Batixta Iratzokik Igantzi utzi eta Leitza joan zenean; orain Betelun dago, eta han ere abesbatza zuzentzen du. Hortaz, orduz geroztik Isabel Lakar lesakarra ari da Igantziko Abesbatza zuzentzen.

URTE OSOA OSPATZEN

Urteurreneko ospakizunak martxoan hasi ziren, Beteluko Abesbatzaren emanaldiarekin; erran bezala. Hilabete berean herriak Berako Abesbatzaren bisita hartu zuen, Fatima Gonzala-

lezen zuzendaritzapean. Ekainean Lesakako Abesbatzak emanaldia eskaini zuen, Marisol Perez zuzendari. Azkenik, urriaren akabailan Giltzari Abesbatzak kontzertua eskaini zuen; Isabel Lakar aritzen da horretan ere zuzendari lanetan.

Urte osoko ekitaldiak finantzatu ahal izateko, Igantziko Abesbatzak merkatua antolatu zuen maiatzaren 1ean, herritarrek emandako gauzeekin. Arrakasta handia izan zuen, eta aurreikusitako diru hagitzez gehiago bildu zuen.

Ordurako Nafarroako Kutxan ere aurkeztu zuten bere urteurreneko proiektua, *Zeuk aukeratu, zeuk erabaki* programaren barrenean. Aipatu behar da horren bitartez ere herritarrek diru aunitz jarri zutela.

Dirua biltzeko bi bide horiek erabili dira, eta bietan ere dirua eman dutenak herritarrak izan direnez, abesbatzak esker ona adierazi nahi izan du.

ERRIOXARA ATERALDIA

Ekainean abesbatzako kideak egun pasa-



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Abesbatzako kideak prest dira larunbaterako.

joan ziren Arabako Errioxara, eta nahi zuten herritarrek ere parte hartu ahal izan zuten bidaia horretan. Goizean Biarritin izan ziren, bodega bat ikusten, eta, ondotik, Brionesen bazkaldu zuten.

EMANALDI BEREZIA LARUNBATEAN

Ospakizunei akabaila emateko, larunbatean, abenduak 19, 20:00-etatik aitzinera eta elizan, Igantziko Abesbatzarekin batera arituko dira urtean zehar herria bisitatu duten lau abesbatzak. Lehenik, abesbatza bakoitzak bi obra eskainiko ditu, eta ondotik, bortzek batera abestuko dituzte *Mendirik mendi* (Batixta Iratzokik zuzendua), *Se equivocó la paloma* (M. Perezek zuzendua), *Porrusalda* (I. Lakarrek zuzendua), *Alfonsina y el mar* (F. Gonzálezek zuzendua) eta *Crucifixus* (I. Lakarrek zuzendua). Ondotik, abesbatzak Eguberritako zarea zozketatuko du, eta, behar bezalako akabaila emateko, denek elkarrekin afalduko dute Baratzondon, La Villa jatetxeak prestatu eta zerbitzatuta.



ARGAZKIA: OSKAR TXOPERENA

Giro ederrean joan dira Kultur Egunak

Arrakastatsua izan dira Kultur Egunak. Emanaldi guzietan jende aunitz bildu baita. Gazta lehiaketara aurkeztutako herriko hamar gaztaren artean, berriz, Argiñenbordako Carmen Larralderena izan zen garaile, bigarren Argatagaraiko Elena Retegirena eta hirugarren Goiz Argiko Iñaki Bereaurena. *Oraingo eskola/Ilehengo eskola* gaiaren inguruan antolatutako argazki erakusketa ere gustura hartu zuten herritarrek.



ARGAZKIA: MILA IRAOLA

Herriko pilotariak txapeldun

Bortzirietako Binakako IX. Txapelketan, emaitza onak lortu zituzten Biltokiko pilotariek. Umeak A mailan, Jokin Mitxeoak, Berako Yago Canterorekin batera, txapela eskuratu zuen. Kimuak B mailan, berriz, Enaitz Telletxea izan zen garaile Berako Mikel Eltzaurdiakin batera. Haurrak A mailan, azkenik, Unai Telletxea eta Joseba Aldabe txapeldun izan ziren, partida eder bat jokatu ondotik.

Tel: 948 634 179
ARANTZA
ALBERGIA
ALBERGIA
JATETXEA

LABEZAR
Tel: 948 631 076 - BERA

EGUBERRIAK → OSPAKIZUNAK

Olentzero eta Errege Eguneko ospakizunetarako dena prest dago

Garai bateko mendi mutilen besta eginen da urtarrilaren 6an

Nerea ALTZURI

Urte akaberak sentimendu gazi-gozoek biztuarazten dizkigu. Bertze urte bat akautzear da... Eguberri bezperetan gaude eta nahi edo ez, kanpoko argi eta hornidurek hori islatzen dute. Batzuentzat urteko bertze egunak bezalaxe dira; bertze batzuentzat ospakizun egunak... hutsuneak, berri onak... nahasten dira, baina urtero kronikatxo honetan aipatzen dudak bezala, arrazoi batengatik edo bertzearengatik gure artean ez daudenak go-goan. Kontuak kontu, Olentzerok opariak eta ikatza prest ditu... Zenbat opari banatuko dituen batez ere gure gaztetxoenen artean... (zenbat ikatz merezi duten heldu batzuek ere!!)

Eguberri bezperako arratsaldea sorpresaz bete izan da herrian. Arratsaldean kantari ohiko kalejira eginen da; gero guziak plazan bildu eta Olentzerori ongi-etorri eginen zaio. Gainera, badaezpada, Olentzerori gutuna bi-

dalia badiozue ere, eraman bertze bat arratsalde hortan... Behar bada, Olentzerok muxu eta besarkada tartean eta gozokiak banatuz, gutunak bilduko ditu!! Hori bai, hori guzia, merendu baten inguruan, kantuz eta dantzatzuz.

Baserritarrez jauntzi eta gabon atsaldetan parte hartzeko deia egiten da herritar guzietan!!

ERREGE EGUNEKO BESTA

2001etik egin ez dena berreskuratuko da Errege Egunean. Ater-

pek berriz ere urtarrilaren 6ko ospakizuna berreskuratuko du. Garai batean, 100 inguru mendi mutil izaten zen herritik kanpo mendi lanetan. Eguberrietan etxera etortzen ziren eta Errege Egunean aizkolariak eta Pabloenean bertso bazkaria egiten zen herrian zeudenaren seinale. Aunitzek mendiko lana utzi zuten eta besta urte batzuz ez zen egin.

1984an, Aterpe ireki eta hurrengo urtean berreskuratuko zen besta. Zazpi bat mendi mutilek

oraindik ere mendian lanean jarraitzen zuten eta elkarte besta antolatzea otu zitzaion. Aizkolarien erakustaldi eta bertso bazkari jendetsuak izan ziren eta harrera ona izan dute urtez-urte.

Bederatzi urte eta gero, berriz ere Aterpek besta antolatu du. Aurtengo ediziorako gainera, argazki erakusketa bat osatu nahi da eta norbaitek argazkirik izanez gero Aterpera jotzeko eskatu dute, baita bazkarian apuntatzeko ere, 948 634179ra deituz.

Bertzalde, urtarrilaren 6ko eguerdian, punta-puntako aizkolarietako erakustaldia izanen da; ondotik, Sebastian Lizaso eta Andoni Egañarekin herri bazkaria izanen da Aterpean. Egun paregabea lotu dute berriz ere Aterpekoek.

Abenduak 19, zarezaren zozketa

Abenduaren 11n, Igantziko eta Etxalarko eskoletako lagunen aitzinean antzerki saioa izan zen eskolako eskutik. Biharamunean berriz, publiko ororentzat antzezlanak izan ziren arratsaldean. Hasiera batean, urteroko eskolako lagunen antzerki saioa abenduaren 19an baldin bazen ere, eskolako zaharrenak Aste Xuriko programaren barne elurretan daudenez, data aldatu zen.

Hala ere, zare ederraren zozketa eguna ez da aldatu. Abenduaren 19an, larunbat honetan izanen da eta nahi izanez gero, gimnasia edonor joan daiteke zozketa ikustera.

Bataioak

Herriko bi nesken bataioak egin ziren azaroaren 29an: Helene Altzuri Lujanbio eta Ekiñe Goñi Oskotzena, hain zuzen.



ARGAZKIA: TTAPI-TTAPA

On Estebanekin Iruñean

Merezitako omenaldia jaso zuen azaroaren 25ean Esteban Irigoienek Iruñeko Planetarioan. Nafarroako euskarazko irratia sortzen lehenbizikoetarikoa izan zelako, Euskalerra Irratiak Larreko Saria eman zion egun horretan, eta herritarrek ere ez zuten aukera alferrik galdu nahi izan. Hala, kuadrilla ederra joan zen Iruñeko ekitaldira, On Esteban agurtu eta bide batez, herrian egin zuen guztiagatik eskerrak emateko. Argazkian On Frantzisko apaiza ere ageri da.

TATANKA ONENA PREZIORIK HOBERENEAN

STIHL

GASOLINA MOTOZERRAK **199€*** tik

* Eskaintza honek 2009ko abenduaren 31 arte balio du

Tatanka zure banatzailea Bortziritan, Salmerita, konponketa eta ordetxo piezak
Biloria, 6 - 31700 LESAKA - T. 948 638 299

SUNBILLA

KULTURA → RAMON LATASARENA ERE IDATZI ZUEN

Antton Espelosinek aizkora apostuei buruzko liburua idatzi du

Ortziralean eginen da aurkezpena Ulibeltzak elkartean

bia aizkolari handia izandakoa. Lerro hauen bidez gonbidapena luzatzen diogu herri kirolzale guztiei egun horretan Ulibeltzak Elkartean eginen den aurkezpena etortzeko.

Jaione OTXANDORENA

Aizkorari buruz Antton Espelosinek idatzi duen liburuaren aurkezpena eginen da ortziralean honetan, hilak 18, 19:00-etan Ulibeltzak Elkartean. *Aizkora apustuak eta txapelketak 1949-2009* da liburuaren izenburua eta 700 orrialde inguru ditu. Ia bi urte pasatu ditu Espelosinek bere lanetik aparte gogotik lanean aizkolariek egindako balentria guztiak artxi-boetan bilatzen eta bildutako gutzia liburu batean idatzi du.

Azken 60 urte hauetan jokaturako 785 bat apustu eta txapelketa ageri dira liburuan. Azkenean, hainbertze amestutako liburua aterako du Espelosinek herri kirolzale guztiendako. Aurkezpen egunean Espelosinek bere ondoan edukiko ditu aizkolari handi eta famatuak, Donato Larretxea aizkolari handia eta Patxi Asti-

Ficobara ateraldia

Ortzirale honetan, abenduak 18, eskolako haurrak Ficobara ateraldia eginen dute. Eguberri inguruan haurrendako berexiki prestatutako jokoak izaten baitira Ficoban. Arratsaldean Txiki-parkera joanen dira.

Olentzero eta Errege Kabalgata

Eguberrietako ekitaldien prestaketak hasiak dira dagoeneko. Olentzero eta Errege Kabalgata antolatzeko Guraso Elkarteak bilerara deitu ditu bazkide guztiak ortzegun honetarako, hilak 17. 16:15ean izanen da Goiko Eskolan. Bertzalde, Olentzerotako azken entsaioa ortziralean, abenduak 18, eginen da, 16:15ean Beheko Eskolan.

Olentzeroren bisita, berriz, abenduaren 24an hartuko dugu. 15:00 aldera etorriko da eta or-



ARGAZKIA: JAIONE OTXANDORENA

Ludoteka ibiltaria

Joan den azaroaren 21ean Malerrekado Mankomunitateak antolatuta ludoteka ibiltaria ailegatu zen Sunbillara. Larunbat goizean haur dexente bildu zen frontoan, bertze herrialdeetako ohiturak eta kontuak kontatu zizkieten eta ondotik gai horiei buruzko eskulanak egin zituzten.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

5,5 hektarea erre ditu suteak

5,5 hektarea erre ziren azaroaren 25eko sutean. Nafarroako Larrialdietako Zerbitzuek 11:42an hartu zuten abisua eta arratsaldera arte ez zuten kontrolatzea lortu. Lana gogotik egin behar izan zuten, sua hiru puntutan zegoelako eta hai-zeak gogor jo zuelako. Azkenean, 17:15ean lortu zuten itzaltzea, baina gehiago ere gelditu ziren batzuk erremate-lanak egiteko. Pinuak, haritz amerikanoak eta larreak erre zituen suak.

du horretan abiatuko da herriko itzulixka Beheko Eskolatik. Eta Errege Kabalgata, urtarillaren 5ean eginen da. Meza ondotik hasiko dira Errege Magoak opariak banatzen, eliz atarian.

Urtezahar Eguna

Garai batean, Urtezahar gauean giro polita izaten zen Ulibeltzak Elkartean. Orain dela urte batzuk afaria antolatzeari utzi zion elkarteak, baina aurten, berreskuratze-

ko asmoz, berriz afaria antolatzeko erabaki du. Afarirako txartelak Iturburu ostatuan har daitezke abenduaren 27a baino lehen. Afal ondotik, Agerralderen eskutik dantzaldia izanen da.

HERRIKO
ETXEREN
EBRATEGIA
CAFÉ DE LA MAIRIE
TEL: 0539542519
Mazzan eta Warrinque
SARA

ZUBIONDO
Jatetxea
Nagardotegia jatetxea
Alasta karrika
BERA NAVARRA
TEL: 945 05 474

larreta
IGELTSU PROIEKTATUA
SUNILLA - BERA
Gorka Arretxe 637.225.514 Jazmin Sanjurjo 637.921.299

KIROLA → MENDIA

Mendiaren Eguna antolatu du Erreka Elkarteak larunbat honetarako

Patxi Goñi mendizalea izanen da protagonista

TTIPI-TTAPA

Erreka Kirol Elkarteak antolatuta, Mendiaren Eguna egingen da larunbat honetan, hilak 19. Eguneko gonbidatu berezia Patxi Goñi izanen da, Irunberriko mendizalea. Hymalayan ibilitakoa da Goñi, Everest, Gas-herbrum II eta Kangchenjunga barna. Gainerakoan, hau izanen da egitaraua:

- 07:30ean irteera Bonozorrotz mendira.
- 12:30ean mendizaleen poteoa.
- 14:00etan bazkaria Kasinon (Titi ostatuan eman behar da izena hilaren 17a baino lehen)
- Bazkalondotik, *Sanba* San Migelek Elbrusera joan zeneko irudien proiektzioa emanen du Kasinon.
- 19:30ean Patxi Goñiren proiektzioa.

SASKIAREN ZOZKETA

Larunbat honetan, egingen da Erreka Elkartearen Eguberrietako saskiaren zozketa, Elkartearen egoitzan.

SAIOA MENDIRA IRTEERA

Mendia alde batera utzi gabe, abenduaren 24an Saioara ateraldia antolatu du Errekek.

URTEKO AZKEN EGUNA

Ohi bezala, kirola egingenez akituko du Errekek urte zaharra. Goizean Mendaurrera ateraldia egingen da eta arratsal-



ARGAZKIA: ZALDUA

140 laguneko taldea

Azaroaren 28an Erreka Kirol Elkarteak egin zuen aurkezpenean argi gelditu zen baduela taldeak etorkizuna. Zazpi talde ditu gaur egun Errekek kategoria desberdinetako ligetan, eta horrez gain kompetitzen ez duten bertze bi ere bai. Denetara 140 jokalaririk inguru aritzen ditu eskubaloian.

dean, berriz, IV. San Silvestre lasterketa. Lau kilometro inguruko ibilbidea izanen da. Dena den, helduen aitzinetik, haurrek ere izanen dute lasterka ibiltzeko modua, 18:00etan hasita. Denentzat opariak izanen dira, eta parte hartzen dutenen artean zozketak ere egingen dira.

Eguberrietako ekitaldiak

Eguberriei begira, hainbat ekitaldi izanen dira herrian.

Abenduaren 21ean, txistor jatea egingen da Doneztebarrak Merkatarrien Elkarteak antolatuta, **hilaren 28an**, berriz, birziklapen tailerra eta ondotik erakusleiho lehiaketako sari banaketa. **Urtarrilaren 4an** herri kirolak antolatu ditu eta aipatuaz gain, 47 saski eta 1.000 euroko erosketa balea zozketatuko ditu.

Urtarrilaren 5ean, bertzalde, ohiko erregeen kabalgata izanen da 17:30etik aitzinera.



UTZITAKO ARGAZKIA

San Migel ikastetxearen urteko azken jaialdia

Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik, San Migel ikastetxeko neska-mutiko eta irakasleek abenduaren 22an egingen dute urteko azken jaialdia. Ohi bezala, talde bakoitzak zerbait eskainiko du: batzuk dantzak, bertzeek kantak... Olentzeroren bisita ere izan dute eta gero goxokiak banatuko dira. Eta bere garaian aipatu gabe gelditu zen eskolakoen ateraldi bat ere ezin alde batera utzi. Urrian, seigarren mailako ikasle eta irakasleak Hueskako Campo herrira joan ziren ingeleseko kanpaldi batean parte hartzera. Ingelesa praktikatzea zen helburua eta horretan aritu zen argazkian ageri taldea.



ITUREN

GIZARTEA → MALERREKAKO INMIGRAZIO PLANA

Ludoteka ibiltariaren azken besta abenduaren 26an egingen da

Arratsaldean egingen dira ekitaldiak Herriko Etxean

Arkaitz MINDEGIA

Malerrekako Mankomunitateko inmigrazio programaren barne, abenduaren 26an ludoteka ibiltariaren azken saioa egingen da herrian. Arratsaldean, 16:00etatik 19:00etara izanen da, Herriko Etxean. Ekimen honen helburua giro goxo batean haurrak elkartu eta jolastea da, bertze lurraldeetako jolasak eta ohiturak landuz.

Bortz txoko tiki prestatuko dira, kontinente bakoitzeko bat. Txoko bakoitzean, haurrak taldeka banatuz, jolasa edo eskulan bat egitea izanen da ekintzetako bat. Taldeka txokoz-txoko pasako dira eta bukaeran, hasierako kontinentera iristen direnean kontinente erraldoi bat emanen zaio taldeari eta erdian puzzlea osatu beharko dute denen artean. Egunari bukaera emateko berendua izanen da.

Alkateordeen izendapena

2009ko irailaren 25eko



ARGAZKIAK: TRIKIDANTZ TALDEA

Trikidantz taldea Parisen

Nafarroako Egunaren oroitzapen gisa, Parisko Euskal Etxeak hainbat ekitaldi antolatu zituen abenduaren 5erako. Eta tartean, Trikidantz taldeak dantzaldia eskaini zuen. Egun hori ez ezik, zubi osoan, bortz egunez han izan ginen Trikidantzeko taldekideak eta egun ezin hobek pasatu zituzten. Eskerrik asko Parisko Euskal Etxeko arduradun guztiei eta hurrengo bat arte. Trikidantzen Parisko kontzertuko argazkiak www.myspace.com/trikidantztaldea Interneteko atarian daude.

ebazpenaren bidez, Udalak lehenbiziko alkateordea Jose Iparra-girre Altamira izendatu du eta Maria Cristina Apeztegia Saldias, berriz, bigarren alkateordea.

Gainean ditugu Eguberriak

Dagoeneko etxeetako balkoiak Eguberrietako pinuekin apainduak ikusten ahal ditugu herrian, eta ume-

txoen poza ere nabaria da Olentzerori eskutitza idazterakoan. Ba bai, gutti falta da eta horregatik abenduaren 24rako Eguberrietako kanten entsaioak egiten hasiak dira gaztetxoak. Urtezharr eta Errege Bezperan ere ohiko ekitaldiak ospatuko dira.

Lerro hauen bidez, Eguberri eta Urteberri On denei eta ongi akitu urtea eta hobeki hasi heldu dena.

Eskolan Eguberrietako jarduerak

Abenduaren 22rako, asteartea, jaialdi handia prestatua dute eskolako ikasle eta irakasleek urtero bezala. Azken hilabeteotan kanta eta dantzak ikasten ari dira eta orain gurasoei erakusteko prestatu daude. Ekitaldiak 09:30an hasiko dira Herriko Etxeko Ganbaran. Ingelesa, gaztelania eta

euskarazko kantak eta hainbat estilotako dantza eta koreografiak egingen dituzte. Akitzeko ikasleek, irakasle eta gurasoekin batera, euskal dantza bat dantzatuko dute eta Eguberrietako oporrak hartu aitzinetik hamaiketako ederra egingen dute.

Eskolako hauteskunde batzordea osatua

Eskolako hauteskunde batzordea hautatua dago eta horrela gelditu da; irakaslearen aldetik Begoña Lizarbe izanen da ordezkaria, gurasoen aldetik Arantza Diez, ordezkaria M^a Carmen Etxepare eta Roxa Ariztegi eta zuzendari bezala Carmen Larkar.

Bikain joan dira Kultur Egunak

Ibintza Kultur Taldeak antolatuta, abenduaren 4tik 6ra egin ziren Kultur Egunak arrakastatsua izan ziren. Larunbata izan zen egunik mugituena, haurren bazkarian 35 lagun bildu baitziren, eta helduen afarian, berriz, 50. Bertzalde, gogoan izan, Ibintzaren zozketa Errege Bezperan egingen dela Herriko Ostatuan, afa-londona.

GABONETAKO SASKIA PARTA HARTZEKO DEITU

948 635 458 ^{FB}

Azulekharretik ostirala 08:00 - 16:00

IRAKURLE GUZTIEK PARTE HAR DEZAKEZUE



OSTALARITZA → KONPONKETAK EGIN ONDOTIK

Larunbatean irekiko ditu Herriko Ostatuak ateak

Ilunabarrean pintxoak izanen dira herritarrentzat

Fermin ETXEKOLONEA

Azkenean, larunbat honetan, abenduak 19, zabalduko da Herriko Ostatu. Hasiera batean abenduko zubirako irekiko zela iragarri arren, barruan egin diren konponketa lanen ondorioz, hainbat egunez atzeratu da eguna. Baina, orain, txukuntxukun apainduta, larunbaterako prest egonen da. Horrela baieztatu digu Gorka Fuentes arduradun berriak. Gainera, ilunabar aldeira, pintxoak eskainiko ditu Ostatuan. Herritar guziei joateko gonbitea egin die.

Lan handia hartu du Fuentesek Herriko Ostatu egokitzen. Azaldu digunez, hamar logeletatik bost garbitu eta margotu ditu, eta komunetan eta jantokian ere gauza bera egin du.

Badator Olentzero!

Urteroko bisita egiten du hilaren 24an Olentzerok Zubietara, eta ohi bezala, itzulia egiten da herrian barrena Eguberrietako abes-
tiak kantatuz.

Eskolaren

erabilpena aztergai

Klaseak emateko ez, baina bestela, oso toki erabilia da eskola. Izan ere, bost dira gaur egun eskolan egiten diren ekintzak: aerobic ikastaroa, trikitixa, eskulana, ludoteka zerbitzua

eta gazteentzako lokala. Modu batera edo bestera, guztiak daude martxan, baina Udalak hobeki antolatu nahi du erabilera, eta hortaz, kontua lantzen ari da. Denei tokia eginez, antolaketa ona ematea da helburua.

Karrikak konpondu eta aparkalekuak egin

Nafarroako Gobernuak dirulaguntza berria emanen dio Udalari, eta subentzio horrekin karrikak moldatu nahi ditu Herriko Etxeak. Baina horrekin batera, karrikak konpondu bidenabar, aparkalekuak egitea da Udalaren nahia. Herrian dagoen aparkalekuaren arazoari aterabidea emanen litzaioke horrela.



UTZITAKO ARGAZKIA

Ander Fuentes Bortzrietako Taldekako Bertsolari Txapelketan ariko da

Bertsotan ederki moldatzen dela erakutsia du behin eta berriz Ander Fuentes *Itturrik*. Eta txapelketetarako gogoia baduela ikus daiteke. Parte hartu duen azkena Malerrekako I. Taldekako Bertsolari Txapelketa izan da. Abendu hasieran, *Itundarrak* taldearen kontra aritu zen, Maialen Belarra doneztebarrarekin eta Irati Arrieta sunbildarrarekin batera. Ez zuten irabazterik lortu, nahiz eta Bortzrietako Txapelketan parte hartuko duen. Berez, Malerrekako irabazleek zuten Bortzrietakoan aritzeko eskubidea, baina halere, Juan Mari Lopez eta Jon Silveira lagun dituela, ostiral honetan, abenduak 18, Berako Espidobaitan bertsotan ariko da. Zorte on!

edredoi fundak
albornozak
edredoi nordikoak
ohe estalkiak
maindireak
mantelak
kuxinak
toailak

1951tik
Casa Cambra
lentzeria-etxea

Mantetan eskaintzak

Tafalla, 13 • IRUÑEA
948 230 634

EZKURRA

EKONOMIA → KRISIA

Akitu al da krisi ekonomikoa Ezkurran?

Herriko ostatua eta eraikuntza enpresak lanez gainezka daude

Fernando ETXEBERRIA

Krisi ekonomikoak hondoa jo duela eta egoera berpizten ari dela esana du politikariren batek, eta badirudi egia dela Ezkurraren kasuan. Hori erakusten duten hainbat datu daude. Momentu honetan lau etxe berri eraikitzen ari dira, eta horrez gain, beste lau -Zapatainea, Mikeleneaa, Albisonea eta Txontonea- zaharberritzen ari dira. Herrian bi lagun dira erregulazioz edo ERE ospetsu horrekin daudenak, baina gainerakoan, ez dago langabeziarik.

Bi eraikuntza enpresa daude Ezkurran eta horiek ere lanez gainezka dabilta. Lohitzunek zein Ezkainek hurrengo urte osoan lana izanen omen dute.

MUGIMENDU HAUNDIA OSTATUAN

Etxeak egin eta berritzen ari direlako, Barranka Ostatuan ere nabaritu da eragina. 20 baz-

kaltiarretik gora elkar-tzen dira egunero menua jatera, edo 25-30 euroren truke, ohiko platerak dastatzera: babarrun gorriak, ehizako platerak, arkumea, baserriko oilaskoa txilindron erara, arraina, txuleta eta postre ugariak. Hori guztia eskaera haundiarekin. Jose Luis Gorostiagaren hitzetan, udazken honetan inoiz baino lan gehiago egin dute. Beraz, behar-bada salbuespena izanen da gurea, baina momentuz behintzat, herriarrak eta ostalaritza eta eraikuntzako enpresak osasun ekonomiko onean daude.

Landa-etxe berria

Landa-etxerik gabeko herriak gutxi dira Malerrekan, baina horien artean zegoen Ezkurra orain arte. Baina orain, Bitoriano Iparragirreri esker, lehenbiziko landa-etxea eraikiko da herriko inguru zoragarri batean, Peskonea baserritik hurbil.

Nafarroako Gobernuak Turismo Departamentuak behar zituen lehen baimenak eman dizkio dagoeneko eta seguru aski, luze gabe hasiko dira obran.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Argazkian ageri diren etxe hauek dira eraikitzen ari diren lau etxe berrietatik hiru.

Aizkora apustua jokatu da abenduaren 27an Donezteben

Tolosako probaren inguruko zurrumurruek oraindik segitzen baldin badute ere, beste apustu bat sortu da inguruan. Alde batean, Migeltxo eta Hilario daude, Miel Mingegiaren semea eta anaia. Eta beste aldean, berriz, Txurdineko Joseba eta Juanito iturendarra.


Zortzi kanaerdiko ebakitzeko apustua egin dute eta abenduaren 27an, igandearekin, Donezteben egin dute hitzordua, 12:30ean. 3.000 jarri dituzte jokoan, eta lekukoa eta gordetzaila Barranka Ostatu Jose Luis Gorostiaga izanen da.



ARGAZKIA: FERNANDO ETXEBERRIA

Akitu da uso denboraldia

Nahiko haserre akitu dute uso denboraldia ehiztariek. Orokorrean oso pobrea izan da, zenbait eratsundarrek 53 uso bota zituzten egun hura kenduta. Ezkurrako batek, berriz, berak bakarrik 25 bota zituen egun bakarrean. Hobeia izan da oilagor sasoiak, eta oraindik hobeia birigarroarena. Azaroaren 6tik 10era bitartean milaka pasa ziren, eta ehiztariaren batek 200 baino gehiago bota omen zituen. Denboraldia behar bezala akitzeko, ehiztariak Eratsungo elkartean bildu ziren afaltzeko. Egia esateko, ehiza postuan baino platerean gusturago hartzen dutenak gehiago ziren. Normala denez, plater nagusia usoa izan zen, Joakin Deskargak dotore prestatua.



EUSKARA → MALERREKAKO MANKOMUNITATEAK ANTOLATUTA

Malerrekan Euskaraz Bai Eguna eginen da larunbatean Donezteben

Joaldunak, dantzariak, musika taldeak, antzerkiak... izanen dira

TTIPI-TTAPA

Euskararen normalizazioaren alde lanean segitzen du Malerrekako Mankomunitateko Euskara Batzordeak. Eta helburu horrekin, Euskararen aldeko jaialdia antolatu du larunbat honetarako, abenduak 19. Doneztebeko zinean izanen dira ekitaldiak.

Egun horretan, Euskaraz Bai dinamika aurkeztuko du Mankomunitateak. Dinamika hau azaroan paratu zen martxan, euskararen normalizazioa bizkor-



ATXIBOKO ARGAZKIA

Azaroaren 5ean sinatu zuten Joseba Indabere Euskara Zerbitzuko zinegotziak eta Xabier Mendiguren Kontseiluko idazkari nagusiak Euskaraz Bai dinamika martxan jartzeko proiektua.

tzeko Euskara Batzordeak eta Kontseiluak hitzarmena sinatu zuten.

AURPEGI EZAGUN AUNITZ
Herriar guztiei egin die

Mankomunitateak bestara joateko gonbidapena. Baina tartean gonbidatu bereziak edo aurpegi ezagunak izanen dira: Iturengo joaldunak, Amaia Iraola Do-

neztebeko akordeoilari ezaguna, Doneztebeko dantzari tikiak eta helduen dantza taldea eta Trikidantz taldea, bertzeak bertze. Musika eta dantza ga-

EUSKARAZ BAI PROIEKTUA

Azaroan abiatu zuten Euskaraz Bai proiektua Malerrekan, eta larunbaten honetan, berri, ekimena aurkeztuko dute Doneztebeko zinean.

in, hizlariak ere izanen dira jaialdi honetan, Euskaraz Bai proiektuak duen garrantzia azalduko baitute Kontseiluko ordezkariak. Ekitaldiari behar bezalako akabera emateko, jan eta edatekoa izanen da.

Arratsaldean segituko du bestak. 16:30ean haurrei eskainitako antzerkia izanen da: Anne Mona, Oskola eta Karra-marroi taldeak *Ino, Ino, Ino, ... badator Bonbardino!!!* ikuskizuna eskainiko du.

ITUREN *Zure ametsia gaituzten*

30 ETXEBIZITZA LIBRE ETA VPO-AK **VIVIENDAS LIBRES Y V.P.O.**

Elgorriagako baimuetxe berriaren ondoan

Tel. 948 580 344
www.lindutx.com

Zure etxea, zure bizitza. Te gustu, te gusta

Informa zaitetz Baztan eta Ultzamako promozioetaz

EUSKARA

EUSKARAZKO HEDABIDEAK NAFARROAN →

Nafarroako euskarazko hedabideak laguntzarik gabe gelditu dira aurten

Guztia erabaki politikoa dela salatu du Topaguneak

TTIPI-TTAPA

Dirulaguntzarik gabe gelditu dira Nafarroako euskarazko hedabideak. Izan ere, urtea akautzear dago eta Gobernuak ez du deialdirik egin. Xabier Azanza Euskarabideako zuzendariak ere, kontua «oso beltz» dagoela iritziz dio. «Epez hain estu ibilita oso beltza ikusten dut». Hala adierazi zuen azaroaren 24an Xorroxin Irratiari emandako elkarrizketan. Deialdirik gabe, iazko aurrekontuetan gordetako 9.567 euroak ere kolokan egon litezke.

Ordura bitarte, deialdia aterako zela errana zuen hainbatetan Azanzak. Berak ere horrela aitortu zuen Xorroxinen. Dirulaguntza deialdia egiteko «behar den Gobernu Akordioa sinatuko zela erran dugu. Eta gaur [azaroak 24] jakin dut atzoko Gobernu saioan

ez zutela onartu dirulaguntza ateratzeko behar zen akordioa. Zergatik ez zen onartu ora indik ez dakidala aitortu behar dut». Beraz, nahiz eta 1986ko Euskararen Legeak laguntza material eta ekonomikoak bideratuz euskararen presentzia hedabideetan sustatzera behar izan duen Gobernuak, euskarazko hedabideak ez dituzte iragarritako 240.000 euroak hartuko.

240.000 euro horiek bertze zerbaitetan inbertitu dituzte Hezkuntza Sailak: «ikastetxe edo haurtzaindegiren batean... obrak egiteko behar omen dituzte eta hori lehentsiko dute», salatu du Topaguneak. Arrazoi horri «aitzakia» usaina somatu dio: «hau guztia ez da erabaki tekniko, erabaki guztiz politikoa baizik, xede garbia duena: eskal komunikabideak guttiestea, euren langile eta ordezkariak mesprextatuz, Nafarroako euskal komunitatea bertze behin ere iraintzea bilatzen duena, bide batez, lege ezarrita duten betebeharrari muzin eginez».



ARGAZKIA: TOPAGUNEA

Topaguneak prentsurrekoak eskaini zuen azaroaren 27an Iruñean. Ezkerretik hasita, Mikel Buldain (Nabarrerria), Oskar Zapata (Topagunea) eta Garbiñe Petriati (Bierrik Fundazioa).

URTE OSOA BUELATA

2008ko abenduan Parlamentuak 2009ko aurrekontuak onartu zituen, eta hedabide guztientzako 9.567 euro aurrerikusi ziren –2008an baino %96,7 guttiago–. Euskarabidearen aurrekontuan %25eko murrizketa egin zen, baina goi

SALAKETA

«Hau guztia erabaki guztiz politikoa da»

TOPAGUNEA

Euskara Elkartearen Federazioa

ARRAZOIA

«Epez hain estu ibilita oso beltza ikusten dut»

Xabier AZANZA

Euskarabideako zuzendaria

DATUA

3.000.000

EURO

banatu ditu Gobernuak gaztelaniazko hiru telebisten artean.

karguen diru-sarietarako gehiago bideratu zen.

2009ko urtarrilean, Carlos Perez Nieves Hezkuntza kontseilari izandakoak eta Xabier Azanzak diru gehiago lortuko zutela adierazi zuten. Eta uztailean, Azanzak 240.000 euro lortu zirela erran zuen. Baina irailean berriz ere blokeatuak gelditu ziren. Hilabete horretan, UPNk CDNrekin zuen gobernu akordioa hautsi zuenean, Topaguneak dirulaguntzen deialdia lehenbailehen egiteko eskatu zion Azanzari. Baina honek ez zuen garaz argitaratu.

2009ko azaroaren 24ra arte, Euskarabideako zuzendariak laguntza deialdia egiten zela errepikatu zuen, baina egun horretan bertzelakoa aipatu zuen: «urtea bukatzen ari da eta oso gaizki gaude», adierazi zuen. Gisa honetara, Topagunearen ustez, «ezerezean gelditu da, Euskarabideak eta Hezkuntza Departamentuak urte osoan, eta uztailean bereriziki, emandako hitza».

TELEBISTA DIGITALENTZAT HIRU MILIOI EURO

Gobernuak 3.000.000 euro banatu ditu aurten euskaraz emititzen ez duten Nafarroako hiru telebisten artean. Television Popular de Navarra (892.335,52 euro), Canal 6 (1.207.129,07 euro) eta Canal 4 (898.473 euro).

ESKAERA ZEHATZA

Egoera ikusita, eskaera zehatza egin die Topaguneak PSN, NaBai, EB, CDN eta UPNri: «datoarren urterako aurrekontuetan euskarazko hedabideok aurten jasan dugun kolpe latz hau neurri batean behintzat konpentsatu eta aurrekontuan ezarritako 250.000 euroko partidaz gain, uztailean hitz emandako bertze 240.000ak gorde ditzatela helburu horretarako».

Horrekin batera, agerian utzi nahi izan du prest dagoela «2010ean euskarazko hedabideen egoera egonkortzeko elkarlanean segitzeko». «Horixe da gure helburua, eta Gobernuaren legezko zeregina».

elika
Dietetika... elikadura

Analizaketa dietetika eta nutricionaria
Ondura osasuntsua
Egunkoan ahal den emaitza ematea
Elikadura eraketa eta eraketa
Dietari personalizatua
Guztiz konposatuaren ahalaketa
Elikadura berria
Naherizko jarabidea

Iñur Andueza Larra
Itza, 6 behe - BERA - Tel. 948 631 283 - elikabera@hotmail.com

Etxe Ardi Gazta

LIZUN
GAZTANDEGIA

Petxenekoborda · SUNBILLA · Tel: 948 450 882

ttipi-ttapa
www.ttipi.net

DONEZTEBE-SANTESTEBAN

EGUBERRITAKO EGITARAUA
PROGRAMA DE NAVIDAD

2009-2010



DONEZTEBARRAK MERKATARI ELKARTEA ZUREKIN BETI
ASOCIACION DE COMERCIANTES

ABENDUAK 21 DICIEMBRE

TXISTORRADA

18:00 UDALETXKO ESTALPEAN - CUBIERTOS DEL AYUNTAMIENTO

ABENDUAK 28 DICIEMBRE

ERREZIKLAJE TAILERRA - TALLER DE RECICLAJE

17:00 UDALETXKO ESTALPEAN - CUBIERTOS DEL AYUNTAMIENTO

ERAKUSLEIHO LEHIAKETAREN SARI BANAKETA
ENTREGA DE PREMIOS/ CONCURSO ESCAPARATES

URTARRILAK 4 ENERO

BERTAKO JOKOAK - JUEGOS POPULARES

17:00 PLAZOLETA SANTA LUZIA PLAZOLETAN

(Parte hartzaileen artean kamiseta eta sudadera bat zozketatuko dugu/
sortearemos una camiseta y una sudadera entre los participantes)

EGUBERRIETAKO ZOZKETA- SORTEO DE NAVIDAD

Gure erosleen artean - Entre nuestros clientes

47 SASKI - CESTAS

1000€ - EROSKETA BALETAN
EN VALES DE COMPRA



ERAKUSLEIHO LEHIAKETA- CONCURSO DE ESCAPARATES

ABENDUAREN 13TIK AURRERA. A PARTIR DEL 13 DE DICIEMBRE

(Bozketan parte hartzen dutenen artean kamiseta eta sudadera bat zozketatuko dugu)

(Sortearemos una camiseta y una sudadera entre los que voten para el concurso)

Colaboradores / Laguntzaileak



Donostebeko Udala
Ayuntamiento de Santesteban



2013 | GOBERNO DE NAVARRA



NARBARTE

OSPAKIZUNAK → EKITALDIAK SAN ANDRESETAN

Giro eta umore ederrean joan dira San Andresetako ospakizunak

Jendetza bildu zen larunbateko herri kirol eta bazkarian

DATUA

60

LAGUN

elkartu ziren San Andresetako bazkarian.

TTIPI-TTAPA | NARBARTE

Besta giro ederrean joan dira San Andresak. Azken urteko ohiturari jarraituz, herri kirol saio batekin hasiera eman zitzaion egunari; ondotik, 14:00 aldera, herriko ostatuan 60 bat lagun bildu zen bazkaltzeko eta Mikel Salaberri akordeoilariak arratsaldea alaitu zuen.

Igandean, berriz, mustxapelketa izan zen eta astelehenean meza eder batekin omendu zen herriko zaindaria.

Adimen emozionala hizpide

Arotzenea Guraso El-



UTZITAKO ARGAZKIA

Kontu kontari ederki pasatu zuten mahaiaren inguruan herritarrek.

karteak antolatuta, abenduaren 1ean he-

rriko eskolan *Emozio ikaskuntzaren* zerbitzu-

ra izeneko hitzaldia izan zen.

AMEZTIA
HOSTALA | JATETXEA | OSTATUA

Pintxoak eta bokatak
Bokatak eramateko

ESPEZIALITATEAK:
Arrainak eta haragiak parrillan
Garaiko barazkiak

Jolas parkea

Ameztiako langileak eskerrak eman nahi dizkizuegu bezero guztiari gurera etortzeagatik.

Zorionak eta urteberririk on!

Tel.: 948 45 00 28
Doneztebe

AMEZTIA
Bokatak

AMEZTIA
HOSTALA | JATETXEA | OSTATUA

Pintxoak eta bokatak
Bokatak eramateko

ESPEZIALITATEAK:
Arrainak eta haragiak parrillan
Garaiko barazkiak

Jolas parkea

Ameztiako langileak eskerrak eman nahi dizkizuegu bezero guztiari gurera etortzeagatik.

Zorionak eta urteberririk on!

Ameztiak, 9 | DONEZTEBE
Tel.: 948 450 028 (ostatua)
948 451 902 (jaketxea)

info@hostalasadorageztia.com
www.hostalasadorageztia.com

DIRULAGUNTZA → 'ZUK AUKERATU, ZUK ERABAKI'

Apezaren Etxeko teilatua konpontzeko proiektua diruz laguntzen ahal da Nafarroako Kutxan

Proiektuaren alde egiteko azken eguna hilaren 31 da

TTIPI-TTAPAA | LEGASA

Apezaren Etxearen teilatuaren konponketa dela eta, Legasako Kontzejuak proiektua Nafarroako Kutxaren *Zuk erabaki, zuk aukeratu* egitasmoan sartu du. Proiektu zenbakia 17.656 da eta egitasmoaren amaitze data abenduaren 31 da.

Zenbat eta jende gehiagok aukeratu proiektua, orduan eta diru gehiago lortuko da. Beraz, bai Legasako herritarrei, nahiz Bertizaranako guztiei, eta orohar Nafarroako Kutxan kontua duten guztiei ere, proiektu honen al-

de egiteko eskatu du Kontzejuak.

Giro ederra Kattalin Egunean

Giro ederrean pasatu dugu aurtengo Kattalin Eguna. Joan den urtean baino jende gutxiago elkartzeak ez zuten giroa batere hoztu.

Goizean-goiz gosaria egin zen, eta tripa betearekin mus txapelketari ekin zieten partaideek. Txapeldunak Txopo eta Fernando izan ziren. Ondotik, pilota partidak jokatu ziren. Eguerdian, berriz, zikiro-jatea izan zen eta gero DJ-Jose Marirekin dantzaldi ederrak egin eta kantu dextente abestu zituzten herritarrek. Besta gaueko ordu txikiak arte luza-tu zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

Apezaren Etxea egoera honetan dago.



UTZITAKO ARGAZKIA

Doneztebe eta Legasa arteko trenbidea moldatu dute

Legasatik Doneztebe aldera doan trenbide zatia zementatu dute berriki. Zehatz-mehatz 1,2. kilometrotik 500. metrora zementatu dute eta gainontzekoari zabor-legarra delakoa eman diote. Honekin batera, egurrezko hesiak ere paratu dira leku arriskutsuetan.

suma
supermerkatua

Egin itzazu eguberretarako erosketak suma supermerkatuan!

Elizagibela, 1 DONEZTEBE - Tel. 948 450 871 - sumadoneztebe@hotmail.com

ttipi-ttapa

- Paperetako edizioa
- Hamaroteka
- Eguneko berriak
- Agonda
- Merkatu titkia
- Eguraldia
- Urtebetetresak...

www.ttipi.net

GIZARTEA

ERRETIRATUAK → ARKUPEAK ELKARTEAREN URTEKO BESTA DONEZTEBEN

600 bazkide elkartu dira Arkupeak Elkartearen urteko azken bestan

Bereziki gogoan izan dute Jesus Goldaraz apaiz hilberria

TTIPI-TTAPA | DONEZTEBE

Arkupeak Erretiratu-en Elkarteak urte akabillako besta egin zuen azaroaren 21ean Donezteben eta urteko balantzea egiteko eta heldu den urterako ekitaldien berri emateko ere aprobeixatu zuen. Ekitaldietan, bertzeak bertze, Miguel San Miguel Doneztebeko alkateak, eta Maria Isabel Garcia Malo Nafarroako Gobernuko Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako kontseilariak eta Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen kontseilariak parte hartu zuten.

Eguneko egitaraua Juan Antoni Aznarez, Ramon Apezetxea, Basilio Sarobe, Iñaki Lerga, Inaxio Azkoaga, Jesus Mari Sotil eta Mikel Biain apaizek emandako mezarekin hasi zen.



ARGAZKIAK: ALICIA DEL CASTILLO

Jesus Goldarazen senitartekoei oroigarria eman zioten, eta ekitaldiak akitutakoan, 600 lagunek bazkaria egin zuten Donztebeko kiroldegian.

Urtero bezala, hildako bazkide eta lagunenez egin zen meza eta bereziki gogoan izan

zuten martxoan hil zen Jesus Goldaraz apaiza. Joxe Oronoz Arkupeak elkarteko diruzainak eta

Eusebio Maritoren presidenteordeak lore-sorta eta Goldarazen sortxearen argazkia es-

GOLDARAZ GOGOAN

Iraizozen sortua, Jesus Goldaraz Doneztebe, Legasa, Narbarre eta Elgorriagako apaiza martxoaren 12an hil zen, 65 urte zituela. Ekainaz geroztik, Mikel Biain da bere ordezkoa.

kaini zieten Juani bere arrebari eta Bittori eta Kontxi Zenoz bere ilobei. Bittor Elizagoien eta Pakita Mikelarena bertsolariak ere gogoan eduki zuten Goldaraz. Goizeko ospakizunetan izan zen Felipe Ganboa Arkupeak Elkarteko presidentea ere, berriki ospitaleatik atera baita.

600 LAGUN BAZKARIAN

Segidan, 600 bat lagun bildu ziren kiroldegian egin zen bazkarian. Kadereitako Marisol jatetxeak eskainitako bazkalondoan, sariak zozketatu ziren, opariak banatu eta dantzaldia izan zen Jalisko Band taldearekin.

COLCHONES ATSEDEN
KOLTXOI FABRIKA



Zure ametsen fabrika

KRISI GARAIKO GABON HAUETAN:
Familiakoei atsedena oparitu bertan egindako koltxoiekin

Eta hau guztia gure betiko prezioetan, lantegiko prezioetan

Elizate gaitzape eta eraguta gure balaitas eta prezioa

www.colchonesatseden.com



Inuña-Huesca errep. • 948 346 000 • TORRES DE ELORZ • Bilbuerroba kalea • 948 346 006 • BILBAO • Inulamea, 11 • 948 346 066 MENDEBALDEA

NAFARROAKO EUSKAL KANTU TXAPELKETA

Nafarroako Kantu Txapelketako zenbait sari

Baztan, Leitza eta Berara

Finala
Elizondon
jokatu zen

Finalera aile-
gatu zen biko-
teetako bat.



TTIPI-TTAPA | ELIZONDO

Bi kanporaketa eta finala jokatu ondotik, aurtengo Nafarroako Kantu Txapelketak ere eman du berea. Finala azaroaren 21ean jokatu zen Elizondoko Lur dantzalekuan, eta banaka, biko-teka edo taldean aurketu ziren 22 kantarien artean hainbat sari banatu ziren.

Sariei dagokienez, sormenezko kanten lehenbiziko saria Auritzberriko Ainara Villanueva eta Eburne Errearentzat izan zen eta bigarrena, berriz, Arangurengo Maite Menerentzat. Era modernoan kantatu zuten artean, lehenbiziko saria Caliu-Hrentzat izan zen, **Lekarozko** Marta Perez abeslariarentzat, hain zuzen. *Ezeren truke* abestia kantatu zuen Pedro Planillo gitarjolearen laguntzarekin. Bigarren postua Zizur Nagusiko Zuriñe Hildagorentzat izan zen, eta hirugarrena Nahia Barriola **leitzar**arentzat. Mikel Urdangarinen *Egun argian* kantatu zuen, Oihane Calderon gitaran, Garikoitz Etxeberria Djenbearekin eta Zuriñe Goikoetxea pianoan lagun zituela.

Sari bereziak ere banatu ziren eta tartean bat eskualdera etorri zen: **Berako** Uxua Andueza eta Alkozko Amaia Oiarzun bikoteak talde lan onagatik hartu zuten saria.

Rural Kutxaren Gordailu Berezia

%4,50

Babestu zure inbertsioa

inbertsioaren %25

%4,55^{UTA}

%4,50 URTEKO INTERES-TASA NOMINALA

6 hilabeteko epean

inbertsioaren %25

%4,50^{UTA}

%4,50 URTEKO INTERES-TASA NOMINALA

12 hilabeteko epean

inbertsioaren %50

%80^{gaitasun erregulazioaren eta mugatutako aldi-luzeraren bidezko erregulazioaren gaitasunarekin}

EPEMUGAN KAPITALAREN %100 BERMATUA

36 hilabeteko epean

nire aukera

RURAL KUTXA

* Gaitasun erregulazioaren eremua: 1,25 (14,37 UTA)
/Aukeraren arabera: 1,50 (18,75 UTA), 2,00 (26,00 UTA) eta 2,50 (31,25 UTA)

Erakundearen bidez 2009ko abenduaren 28a bitartean edo jorkapenean agertu arte baliatzen da.

www.rural Kutxa.com
Tel. 900 210 000

GOIZUETA

HIRIGINTZA → ETXEBIZITZA BERRIAK

Ospitale Zaharrean sei etxebizitza eginen ditu Udalak

Alokairu sozialean emanen dira pisuak

tertu ondoren, etxebizitzaren arazoari, neurri batean behintzat, aurre eginen dion erabaki hau hartu da azkenean Herriko Etxean.

Esteban AROTZENA

Dagoeneko eskuetan daukan aurreproiektuaren arabera, 40-55 metro koadro bitarteko neurrikoak izanen diren sei etxebizitza eta beste hainbeste trasteleku eraikiko ditu Udalak Ospitale Zaharrean. Pisuak alokairu sozialean emateko asmoa du korporazioak, baina ez du baztertu Babes Ofizialekoak bezala saltzeko aukera ere. Ondorengo asteetan argitaratuko da etxebizitza hauetako bat eskuratzeko bete beharreko arautegia.

Alkateak, medikuak, botikariak eta apezak orain dela bi hilabete sinatutako akordioari esker, herria egin da Ospitalea eta ondasunen jabe. Erortzean dagoen eraikin horretarako hainbat aukera az-

Erremontean ere profesionaletan goizuetarrak

Haritz Zubiri 22 urteko goizuetarrak larunbat honetan, hilak 19, Hernaniko Galarreta frontoian debutatuko du erremonte profesionalean.

Koruaren kontzertua 19an

Larunbat honetan, abenduak 19, ohiko bihurtu den Eguberrietako kontzertua eskainiko du Umore Ona Abesbatzak 20:00etatik aurrera Elizan. Eguberri-kantek osatuko omen dute gehienbat egitaraua, baina sorpresatxoren bat izanen omen du omenaldiak Igaratza Apezetxea zuzendariak aurreratu dugunez.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Ospitale Zaharra herriarena da orain, alkateak, medikuak, botikariak eta apezak sinatutako hitzarmena dela-eta.



ARGAZKIAK: FERNANDO ETXEBERRIA

Feria Egun arrakastatsua

Duela urte batzuk azienda feria berreskuratu zenean, seguruenik askok ez zuten pentsatuko hartu duen izena eta sona hartuko zituenik. Azaroaren 28a egun handia izan zen eta herritarrek ez ezik, kanpotik etorritako bisitariak ere ederki erantzun zuten, egun osoan izan ziren ekitaldietan parte hartuz. Herri bazkarian, esaterako, 500 lagun baino gehiago bildu ziren eta giro bikaina izan zen.



ARGAZKIA: ANGEL SALABERRIA

Euskal Herriko ezirik goxoena Goizuetakoa

Jexux Mari Aranburuk ustiatzen duen Untxariko erlauntzetako eztria Euskal Herri guziko onena da lore anitzekoetan, azaroaren 8an Usurbilen egindako Eztiaren Egunean epaimahaiak erabaki zuenez. Orain dela urte batzuk J.R. Jimenezek ere sari berdina eskuratu zuen.



Baialtzinikin...

Juantxo Apezetxeak 22-7 irabazi ziola Sebastian Gonzalezi 1998an Mexikon jokutako Munduko Txapelketako Buruz Buruko finalean?



OSPAKIZUNAK → EGUBERRIAK

Olentzero berriarekin eginen da aurtengo Eguberrietako itzulia

Antolatzaileek herriko gaztetxo guztiek parte hartzea nahi dute

Kontxi KLABER

Eguberri usaina nabaria da gurean ere. Ospakizunak gainean daukelako, prestaketak ere hasiak baitira. Aurten, gainera, berrikuntza aipagarria izanen dugu Eguberrietan: Olentzero berria. Urteetan Olentzero izan dugunaren ordez, berria prestatzen ari dira herritarrek eta horrekin eginen da abenduaren 24ko itzulia. Ohi bezala, egun horretan, goizez, etxez etxe ibiliko dira gaztetxoak eta helduak. Herriko txikienei gonbidapen berezia egin diete aurten antolatzaileek, neska-mutil guztiek parte hartzea nahi baita.

Lerro hauek idazterakoan ez zegoen zehaztua ordua, baina seguruenik 09:00 aldera abiatuko da itzulia.

OHARRA

09:00 aldera abiatuko da etxez-etxe itzulia Olentzero berriarekin.

Larreak erretzeko eskaerak urtarrilaren 28rako

Larreak erre nahi ditue-

nak udaletxean egin beharko du eskaera 2010eko urtarrilaren 28a baino lehen. Horretarako aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau izanen da: baimen eskaeraren orri ofiziala, lur eremuaren eskritura osoaren kopia eta kokapen planoaren kopia.

Benta-Berriko frontoian pilota partidak

Xabier Zabalegi, Ander Otxotorena, Iñigo Etxeberria, Juan Ortega, Txobo eta Julianek urte osoan hartua dute ordua Benta-Berriko frontoian palaz jokatzeko. Ostegun ilunabarre-

tan egiten dituzte hitzorduak. Hain zuzen, beraiei bururatu zitzaien pala txapelketa bat antolatzea eta horrelaxe egin zuten. Lehenengo pala txapelketarako, 16 bikotek eman zuten izena, horietatik bi herritarrek. Irailaren 22an hasi ziren partidak jokatzeko, azaroaren 27ra arte, egun horretan finala jokatu baitzen. Azken partida honetan, Mañel eta Txikitok 25-13 irabazi zieten Elosegri eta Ibai Kerejetari.

Aipatzekoa da Joxean Ruizek zerikusi handia izan duela sortu den giroarekin. Izan ere, frontoian bi kamara eta tabernan pantaila bat jarritz, zuzenean ikusi dituzte partidak bai partaideek, baita tabernan ibili den jendeak ere, sekulako interesarekin eta giro ezin hobean.

Finalaren egunean afora izan zuten parte-hartzaile guztiek eta giroan beroturik beste txapelketa bat antolatzeko hitz egin zuten, hori bai, esku pilotan.



ARGAZKIA: BEGONA LEONET

50 urte elkarrekin

Jesus eta Margarita Leonet Perurena anai-arrebak Marina Claver Apezetxea eta Joxe Legarreta Bengoetxearekin ezkondu ziren San Martin Elizan, 1959ko irailaren 12an. Fagollagan izan zuten ospakizun bazkaria. Berriki, orain dela 50 urte bezala ospatu dute bi bikote hauek beraien seme-alabekin. Zorionak!

behetik
Añorga-Ixiki, 14 behea
T. 943 368 781
671 073 888
www.behetik.com

Eskailerak igotzea... ez da oztopo!



plataformak • igogailu bereziak • aulki bereziak...

LEITZA

GIZARTEA → TIROKETA AZAROAREN 29AN

Maxurrenean gertatutakoa argitzeko eskatu du Udalak

Hainbat bertsio zabaldu dira herrian

Asier IMAZ

Zalaparta handia eragin du azaroaren 29ko gertaerak, herrian eta herritik kanpo. Egun horretan, goizaldean, Maxurrenea kuartelaren inguruan tiro hotsak entzun ziren eta guardia zibil bat zauritua agertu zen. Horren harira, «ETA-ren atentatu saiakera» izan zela zabaldu zen lehenik. Goizeko lehen ordutik eguerdira arte, sei orduko tartean, segurtasun indarren iturriak aipatuz, berri agentziek ETArri leporatu zioten eraso.

Eguerditik aurrera, ordea, Espainiako Barne Saila hipotesiez hitz egiten hasi zen. Bi frogen emaitzak ere argitaratu ziren egunkarietan: «aurkitutako bala ez da ETArri erabiltzen duena, baizik eta Guardia Zibilak erabiltzen duena, eta poliziak tiroa metro bateko distantziatik jaso zuen». Hortik aurrera zer gertatu zen jakitea oso zaila da, hainbat bertsio plazaratu baitira. Tartean bizilagunenak, bertsio ofi-

ziales urrun, guardia zibilen arteko iskanbila izan zela esanez.

Udalak, bere aldetik, azaroaren 29ko gertaerak salatzen manifestazioa deitu zuen joan den larunbaterako, *Maxurrenea herrintzat. Utzi pakean lelopean*. Benetan gertatutakoa aztertzen exijituz mozioa ere onartu zuen. Horrekin batera, zera eskatu zuen: «aurrerantzean horrelako gertakari ez dadila errepikatu, horretarako ezinbestekoa ikusten dugu indar armatuaren presentzia bertan behera geratzea». Baina honek hautetsi independentisten eta EAren aldeko botoak jaso zituen. UPN eta PPko zinegotziek kontra bozkatu zuten.

Literatur Sariketa

ALKE Kultur Taldeak antolatuta egin den IV. Literatur Lehiaketako sariak azaroaren 25ean banatu ziren Liburutegian. Narrazioetan, Mikel Illarregi izan da irabazle, eta bertso-pauperetan Mielmari Elosegi Luze. Bi irabazleek 150 euroko saria eta bi lagunentzako otordua irabazi dituzte.



ARGAZKIA: ASIER IMAZ

Maxurreneko atarian guardia zibilak, tiroketa gertatu eta hurrengo egunean.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

4x4 kamioia suhiltzaile boluntarioentzat

112.000 euroko inbertsioa egin eta Nafarroako Gobernuak 4x4 kamioia eman die suhiltzaile boluntarioei. 1.400 ur-litroko presio-handiko bomba dauka eta herrigunean ez ezik basoan ere ibiltzeko prestatua dago. David Sainz Jimenez Nafarroako Larrialdi Agentziako (ANE) zuzendari-kudeatzailea azaroaren 26an herrian izan zen eta berekin batera, Xabier Zabalo alkatea eta suhiltzaile boluntarioak ere izan ziren ekitaldian. Aipatzekoa da 19 lagun daudela suhiltzaile boluntarioen taldean.



ARGAZKIA: PABLO FEO

2010eko egutegia kalean

Beste urte batez, argazkilaritzarako duen afizioa erakutsiz, Pablo Feok 2010eko egutegia osatu du. Beti bezala, egutegian ageri diren argazki guztiak Leitzakoak dira, herritarrentzat oso ezagunak diren tokietan ateratakoak, baina egileak TTIPI-TTAPArri adierazi dionez, «beste ikuspuntu batetik» ateratzen saiatu da. Ukitu «pixka bat» izanagatik, «inolako tranpa faltsurik ez dutela» gaineratu digu Feok. 12 eurotan daude salgai.

gaztelu sol
iturgintza
kalifikazioa · saneamendua · gasa
Telefonoa: 948 510 086 - 948 510 156
Faxa: 948 610 856
LEITZA

KULTURA → OSPAKIZUNAK

Ederki gozatu dute neska- mutikoeak abenduko zubian

Euskararen
Eguna
arrakastatsua
izan da

Juana Mari SAIZAR

Azken egun hauek umeen gozamenerako egunak izan dira gehienbat. Izan ere, abenduaren 3an hasita ekitaldi asko izan dira herrian. Egun horretan, Euskararen Nazioarteko Egunean, Euskararen Eguna ospatu genuen eta trikitilari eta taloez gain, goizean jokoak eta arratsaldean Kiki eta Koko pailazoen emanaldiaz gozatzeko aukera izan zuten.

Egun hotza izan zen oso, baina eguraldiari aurre egin zitzaion ilunabarrean batez ere, Guraso Elkarteak eskaintako arratsaldekoarekin. Goizean pi-

lota partidak jokatu ziren herriko gaztetxoen eskutik eta bertan bildu zen jendearentzako pintxo beroak eta salda egon zen eskura.

Egun honetaz aparte, azaroaren 21ean Nafarroako Gobernuak antolatzen duen Udazkeneko Biraren barne, Trikis navar taldeak bere saioa eskaini zuen.

ZINEMA EUSKARAZ

Abenduaren 8rako, bestalde, euskarazko zinema antolatu zen *Perez sagutxo*a 2 filmarekin. Zinemaldi honen aurretik umeek merienda jaso zuten Pake Toki Elkartearen, Guraso Elkartearen antolatua. Arratsalde polita ateratu zen, umeek asko gozatu baitzuten. Esan beharra dago Euskara Zerbitzuak urtero antolatzen dituela gisa honetako ekitaldiak.



ARGAZKIA: JUANA MARI SAIZAR

Argazkiei begiratu besterik ez da egin behar ekitaldiak arrakastatsua izan direla eta neska-mutikoeak ederki pasatu dutela konturatzeko.

estatxa
centro náutico

5
BIDASOAKO AKADEMIA NAUTIKOA
Itsasgintzarako titulua lortzeko Eusko Jauriaritzak homologatutako akademia

Itsasontziko patroia:

- ONP (Oinarriko Nabigazioko Patroia) PNB
- LOP (Laketontziko Patroia) PER
- Yateko patroia

Donostia kalea • Sokoa Merkataritzaren gunea, 10 • HONDARRIBIA
T. 629 070936 • www.estatxa.com

KULTURA

BERTSOLARITZA → XALTO SARIA GOIZUETAN

Jon Elizetxe gartzaindarrak irabazi du Xalto Sariketa

Puntu erdiko alde atera dio Aimar Karrika auriztarrari

TTIPI-TTAPA

Azaroaren 28an jokatuta zen bi urtetik behin egiten den bertsolari gazteentzako Xalto Sariketa. Goizuetako udal txerriaren Ganbaran, Nafarroako 14 bertsolari aritu ziren, eta goizeko eta

arratsaldeko saioen ondoren Jon Elizetxe gartzaindarrak jantzi zuen txapel. Goizuetako feria egunean, giro ezin hobean, egin zen aurtengo Xalto.

laz izaera beretsua duen Mariano Izeta sariketa eskuratu ondoren, aurtengo Xalto irabazi du Jon Elizetxek. Hala ere, sailkapena estu-estu jokatzen zen; Elizetxeren gibelatik puntu erdira Aimar Karrika auriztarrak sailka-



ARGAZKIA: NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Xalto Sariketan parte hartu duten Nafarroako bertsolari gazteak, tartean, beheko lerroan, ezkerretik hasita lehenbizikoa, Jon Elizetxe txapeladuna.

tu zen, eta haren puntu erdira, Eneko Lazkoz etxarriara gelditu zen. Horiekin batera, Saioa Alkaiza, Joseba Beltza eta Josu Sanjurjo izan ziren finalean.

Aurtengo Xalto sariketan honako bertsola-

riek hartu zuten parte: Aimar Karrika (Auritz), Joseba Beltza (Etxarri), Alazne Untxalo (Ituren), Egoitz Gorosterrazu (Ituren), Eneko Lazkoz (Etxarri), Iker Gorosterrazu (Ituren), Iker Tainta (Lesaka), Jon Elizetxe (Gartzain),

Oier Lakuntza (Iruña), Saioa Alkaiza (Iruña), Iñaki Aleman (Iruña), Josu Sanjurjo (Lesaka), Jose Luis Barberia Zili (Leitza) eta Joseba Zabaleta (Leitza). Azken bi hauek estreinakoz aritu ziren bertsotan taula gainean.

KULTURA → EUSKARAZKO PRODUKTUEN KATALOGOA

Kalean da ehunka euskarazko produktu bildu dituen Katalogoaren ale berria

240.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herrian

TTIPI-TTAPA

Urteko garai honetan seme-alabei edo inguruko euskarazko liburu, musika edota bideoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute hamabigarrenez Euskal Herriko 135 udal eta mankomunitatetako Euskara Zerbitzuek.

Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta

gazteentzako ehunka erreferentzia bildu dituen aurten ere. Merkatuan dauden produktuaren artea hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan sailkatu dira: filmak, jostailuak eta jokoak, musika, komikiak, aldizkariak, liburuak, gurasoentzako materiala eta informatika. Gainera, produktu bakoitzaren gutti goitibeheitiko prezioa ematen da, eta zenbait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

WEBGUNEA

Aurtengo berrikuntza sarekoa da. Guztiz berri-

tuta etorri baita www.katalogoa.org webgunea. Paperean bildutako produktuez gain, merkatuan aurki daitezkeen berriez anitz ageri dira. Aukera dago, gainera, produktu horien saltokiak iristeko, eta erosteko. Urte osoan eguneratuta izateko helburuarekin sortu da, argitaletxeek eurek aukera izanzen baidute produktu berriak sartu eta deskatalogatuak kentzeko. Irakurleek beren iruzkinak eta komentarioak egiteko aukera ere izanzen dute.

240.000 ALE PAPEREAN

Paperezko edizioan, 240.000 ale inguru ba-



ARGAZKIA: KULTURKARI

Euskarazko Produktuen Katalogoaren azala.

natuko dira Euskal Herri osoan. Gure eskualdean ikastetxeen bitartez egiten da banaketa, eta Haur Hezkuntzatik hasi eta DBHko 4. maila bitar-

te dauden ikasle guzietan emanen zaie ale bat. Liburuetan eta produktuak saltzen dituzten komertzioetan ere paratuak da katalogoa.

Yakubu naiz, ~~Nigeriakoa.~~

ETA EZ BALU INPORTA
NONDIK ZATOZEN, BAIZIK
ETA NORA ZOAZEN?
A ZER GOZAMENA!



BERDINAK GARA. DESBERDINAK GARA.
PERTSONAK GARA.

2012 ZUHETIKIN
BAGOAZ AURRERA

 Nafarroako
Gobernua



BAZTAN

AZPIEGITURAK → GAS NATURALA ETXEAN

Baztango 1.600 herritarrek eskura dute gas naturala

Arraioz, Elbete, Elizondo, Irurita eta Oronoz-Mugairira ailegatu da

TTIPI-TTAPA

12 hilabeteko lanen ondotik, Lesakatik Baztanera bitarteko gasbideko obrak akitu ditu Gas Navarra enpresak. Hala, Arraioz, Elbete, Elizondo, Irurita eta Oronoz-Mugairiko 1.600 herritarren eskura dago gas naturala. Obra horietan 8,74 milioi euro inbertitu dira eta, zenbateko horretatik, Nafarroako Gobernuak 3,8 milioi euro paratu ditu. Gasbideak 34,5 kilometro ditu eta Bidasoaren ezkerreko aldean egiten du bide osoa, Oharrizko Artesiaga ubidean izan ezik, hor eskuinaldera pasatzen baita. Baztandik kanpo, Doneztebe, Igantzi, Legasa, Narbarte, Oieregi eta Sunbillara ailegatu da.

Hain zuzen, obra hau-ek azaroaren 27an inau-

guratu ziren. Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea, Antoni Peris Gas Naturaleko Negozio Erregulatuen zuzendari nagusia eta Virginia Aleman alkatea, Elizondon izan ziren, inaugurazio ekitaldian. Aipatuz gain, ekitaldian izan ziren, Jose Maria Roig Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu kontseilaria; Begoña Sanzberro Landa Garapenerako eta Laura Alba Herri Lanetako kontseilariak; gasbidea pasatzen den udalerrieta kontzejuetako ordezkariak; Angel Boillos Gas Navarra enpresako zuzendari nagusia, eta enpresako zenbait arduradun.

Literaturzaleen bigarren hitzordua

Literatura irakurleen taldetxoak osatu eta lehendabiziko saioaren arrakasta ikusita bigarrena antolatu da. Otsailaren 24an izanen da Erratzuko elkartean, eta gonbidatua Iñigo Aranbarri idazlea izanen da. *Zulo*



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Baztango eta inguruko herrietako udal ordezkariak inaugurazio egunean, Miguel Sanz presidentearekin eta Nafarroako Gobernuko bertze kontseilariekin.



UTZITAKO ARGAZKIA

Antzerkia ttikienen gozamenerako

Elizondoko Haur Eskolan, 0 eta 3 urte bitarteko neska-mutikoendako antzerkia izan zen azaroaren 26an. Zirika Zirkus antzerki taldeak *Lara Larika* ikuskitzuna eskaini zuen, haurren gozamenerako, Udalak antolatutako ekitaldian.

bat uretan bere azken lanaren inguruan solastera etorriko da. 20:00etan hasiko da ekitaldia.

Antolatzaileek interesa duten guzietan liburua irakurtzeko gonbitea lu-

zatu diete, hartara, «mintzaldiaren egunean solaslaldi aberats eta partehartzailea egiteko».

Liburuaren erosketa kolektiboa egiteko, erosi nahi dutenek izen-abi-

zenak eta harremanetarako telefonoa edo helbide elektronikoa honat bidali beharko dituzte: erratzu@gmail.com. Eskera egiteko azken eguna, ortzirala, hilak 18, da.

Bierresenea
OSTATU · JATETXEA
Jaki tipikoak · Etxeko giroa
Berrituz auzoa · Tfnoa: 948 592 043
ORONÓZ · MUGAIRI

BURKAITZEA
· ostatu
· erretegia
Zugarramurtiko bidea, 3 km
948 599 280 · URDAZUBI

Eskisaroi
TRUKATZEA
Jaime Urutia
Tfnoa: 948 580 013
ELIZONDO

Okindegia *Jatetxea*
Uxoa
OKINDEGIA: Ogi artisaua, egunekoa eta txapata
JATETXEA: Menua eta Karta (asteburuetan)
Especialitatea parrillan erretako jakietan
Enkargatuz gero, bildotsa ogi-labearen erre, goxo goxo!
Ordoki Industrialdea
Tfnoa: 948 453 403
31713 ARIZKUN

AAMK ANTOLATUTA → EKITALDIAK EGUBERRIETAN

Eguberriei begira hainbat ekitaldi antolatu ditu AAMk

Larunbatean, errepresaliatuen aldeko futbito txapelketa egingen da

TTIPI-TTAPA

Ekitaldi ugari antolatu ditu Baztango AAM Amnistiaren Aldeko Mugimenduak Eguberriei begira. Larunbat honetan, erraterako, abenduak 19, errepresaliatuen aldeko lehenbiziko futbito txapelketa jokatu da **Erratzun**. Ondotik afaria eta kontzertuak izanen dira.

Abenduaren 22an, 23an eta 24an, bertzalde, Elkartasun denda egonen da **Erratzuko Zubi-punta**, **Elizondoko Intza** eta **Arizkungo Dolaetxea** ostatueta.

Abenduaren 30ean irratsaioa egingen da Xorroxin Irratian, eta urteko azken egunean, berri, presoan aldeko elkarretaratzea egingen da **Elizondoko** plazan. 20:00etan izanen da.

Urtarrilaren 2an, euskal presoan alde BIlbon egingen den manifestaziora joateko deia ere egin du AAMk.

PATXI URRUTIA ASKE

Patxi Urrutia amaiurra libre dago azaroaren 21az geroztik, 30.000 euroko bermea ordainduta. Joan den urteko otsailaren 4an atxilotu zuen Espainiako Poliziak Iruñean, Baltasar Garzon Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz.

Batasuna legez kanporatutako alderdi politikoaren izenaren aritzea, eta beraz, «delitua errepikatzea» eta «erakunde terroristako kide» izatea egotzi zion. Toledonegon da preso amaiurra, Ocaña 1 espetxean.

Lehenago ere egon zen kartzelan, 2007an Segurako operazioan atxilotu baitzuten. 24.000 euroko bermea ordainduta aske gelditu zen.

Komun eta dutxa publikoak egingen dira Arraiozen

TTIPI-TTAPA

2010ean komun eta dutxa publikoak eraikiko dira Arraiozen. Izan ere, herrian ez da horrelako azpiegiturarik. Komunak eta dutxak Arraiozko gaineko auzoan eraikiko dira, frontoia, plaza eta haurren jolastokia dauden gunean, hain zuzen ere. Haurrak eta gurasoak inguru horretan elkartu ohi dira eta kirola egiteko bertara joaten da jendea. Herriko Laxoako taldeek ere hor entrenatzen dute eta udaberri-uda aldean Baztan-Errekako Laxoa txapelketako partidak jokatzen dira. Asmoa aitzinera ateratzeko beharrezko den dirua biltzeko Nafarroako Kutzaren *Zuk aukeratu*, *zuk erabaki* ekimenaren baitan proiektua aurkeztu da; 18.691 zenbakia du. Abenduaren 31 bitarteko epea dago proiektua bozkatzeko.

Euskal Herriko Mus Txapelketako saioa Arraiozen

Larunbat honetan, abenduak 19, 21:30ean Arraiozko Arizti elkartearen Euskal Herriko Mus Txapelketaren kanporaketa jokatu da. Izena elkartearen paratua dagoen zerrendan edo egun berean eman daiteke, saioa hasi aitzinean. Bikote bakoitzak 20 euro ordaindu beharko ditu eta lehendabiziko lau bikoteendako sariak izanen dira, eta gainera, Iruñeko saioan aritzeko txartela eskuratuko dute.



UTZITAKO ARGAZKIA

100 urte bete ditu Juana Irigoien erratzuarrak

Mendea bete duen bertze baztandar bat ere badugu: Juana Irigoien, hain zuzen. Azaroaren 24an 100 urte bete zituen. 1909an Erratzuko Bullunba baserriaren sortua, bederatzin senideren artean zaharrena da, baina bera bakarrik bizi da gaur egun. Juan Alzuiet urdazubiarrarekin ezkondu zen, eta hiru seme-alaba, bederatzin biloba eta 14 birbiloba ditu. Azken hiru urteotan San Francisco Joakin Iriarte zahar-etxean dago. Eta han izan ziren bere senitartekoak, Santi Aldako, Isabel Bidart, Martin Garde eta Lander Santamaria udal ordezkariak, Karitateko ahizpak eta zahar-etxeak langileak Juana zoriontzeko. Aldakok zapia eman Udalaren izenean, eta zahar-etxearen izenean Inmaculada Urtasun kudeatzaileak oroigarria eta Teresa Etxeberriak Ahizpak lore-sorta eman zizkieten.

Eguberriak Iruritan

Egitaraua ikusita, aspertu gabe pasako dituzte Iruritan Eguberriak. Igan-de honetan, bertso-antzerkia izanen da Gizarte Bilgunean 17:00etan; hilaren 25ean eta urtarrilaren 1ean herriko artisau-erakunde margo eta eskulan erakusketa; 27an Elizondo-

ko Errekro Bandaren kontzertua 18:00etan Elizan; 28an, Fimo tailerrak 16:00etan Gizarte Bilgunean. Urtarrilaren 2an Baztango Koru Ttikiren saioa, 17:00etan Gizarte Bilgunean eta urtarrilaren 8an, toki berean, 20:00etan, *Iran. Topikoen aurkako bidai*a hitzaldia.

Maderas GOMEN

- Ere guzietako ateak, janbak eta regureoak
- Egur idurtak: tropikalak, haritzak, gaztana, pinuak, izarak...
- Tamiak eta zolak: haritze, gaztana, pinua...
- Tablerak: melaminak, hidrofuogak, marbratuak...

Tel: 948 580 646 • Zaldubia industrialdea • IRURITA

BAZTAN

HEZKUNTZA → IRURITAKO ESKOLA

Eztabaidan dauden premiazko proiektuen artean laugarrena da Iruritako eskola

Dirurik lortuko ez balitz 2011ko aurrekontuetan sartuko litzateke

TTIPI-TTAPA

Iruritako eskola berria eraiki arte borrokan segituko zutela iragarri zuten, eta horrela egingen ari dira. Azaroaren 26an Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Saileko arduradunekin bildu ziren Iruritako Guraso Elkarteak, hiru irakasle eta eskolako zuzendaria, Virginia Aleman alkatea eta Martin Garde hezkuntza zinegotzia.

Guraso Elkarteak ohar bidez jakinarazi duenez, «eskola eraikiko den lur eremua uztea onartu zen plenoko idatzia zen Nafarroako Gobernuak etorkizuneko eskolaren proiektua egiteko behar zuen trami- te bakarra». Eta Udalak idatzi hori eman omen zuten Gobernuko or-



ARGAZKIA: IDOIA ESKUDERO

Sanz presidentea eta kontseilariak Iruritatik pasatzen ari zirela aprobetxatuz, protesta bide erdira eraman zuten gurasoek, ikasleek eta irakasleek.

dezkariei. Hauek, baina, krisiaren eraginez aurrekontua murriztu dela eta Iruritako eskolarena 2010eko aurrekontutik kanpo gelditu dela adierazi zieten.

ERANTZUNAREN ESPEROAN

Lerro hauek idazterakoan, aurrekontutik kanpo gelditu diren proiektuak aztertzen ari ziren Nafarroako Parlamentuan. Eta Guraso Elkartearen hitzetan, «Hezkun-

tza Departamentuak arras urgenteak diren hainbat proiektu dirulaguntzarik gabe ez gelditzeko zuzenketak pro-

URTEBETE GIBELERATUA

Iruritako eskola berria egiteko proiektua aurten dirurik gabe geldituko balitz, proiektua urtebete gibeleratuko litzatekela adierazi du Guraso Elkarteak.

posatu ditu». Baina Iruritako eskolarena ez dago lehenbizikoen artean: «gure aitzinetik hiru proiektu daudela erran digute: Orkoiengo eskola, No- iangoa eta Garesekoa. Euren egoerak ez omen du soluziorik». Zerrendan laugarrena da, beraz, Iruritakoa.

Berri hau idazterakoan, ez zen aditzera emana ea laguntzarik izanen den ala ez. «Dirua lortuko balitz, aurreproiektua egina dago

eta berehala egingen lukeke proiektua», diote Guraso Elkartetik. Bide honetan, 2011eko hasmentarako eskola eraikia izanen litzateke. Aitzitik, dirurik gabe, «proiektua urtebete gibeleratuko litzateke. Gure eskola 2011ko aurrekontuetan sartuko litzateke, eta beraz, proiektua 2011ko ilbeltzean egingen litzateke, eta eskola 2012rako».

Egoera ikusita, euren «kezka» adierazten segitzeko asmoa dutela adierazi dute Guraso Elkarteak. Hala, azaroaren 27an, bi orduko geldialdia eta kontzentrazioa egin zuten. Egun berean, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Begoña Sanzberro, Laura Alba eta Amelia Salanueva kontseilariak Dantxarinear eta Elizondorajon ziren, eta Iruritatik pasatzen ari zirela, protesta bide erdira atera zuten ikasle, irakasle eta gurasoek, trafikoa oztopatuz.

LEKAROZEN HOTELA, GOLF-ZELAIA ETA ETXEBIZITZAK ERAIKITZEKO PROIEKTUA → EZTABAIDA BIZI-BIZI

Aroztegia proiektuaren kontrakoek taldea aurkeztuko dute ortzegunean

Proiektuaren inguruan iruzurra salatu du Ezker Abertzaleak

TTIPI-TTAPA

Lekarozko Aroztegia Jauregian eta inguruan egin nahi den inbertsioaren kontrako hainbat herritarrek formalki antolatuko direla iragarri dute. Horrela diote hedabideetara bidali duten oharrean. Aroztegiko gaiaren gainean «kezkatuta» dauden baztandar batzuk dira eta taldea ortzegun honetan, abenduak 17, aurkeztuko dute. Egun horretan «bere burua jendea itzinerat publikoki agertuko du egitasmoaren balorazio xehagoa egiteko eta alegazioen edukiak ezagutarazteko».

Baina bertalde, egitasmoko 252 etxebizitzako urbanizazioaren inguruko «isiltasunak biziki harritu» dituela ere salatu dute aipatu oharrean, eta egitasmoaren sustatzailei buruz ere gauza bat argitu nahi izan dute: «Palacio de Aroztegiaren izena BALTEA promociones inmobiliariasek 2009an hartu duen izena da. Hala, Inmobiliaria Caixa-Galiciak



ARGAZKIA: TTIPI-TTAPA

Aroztegia Jauregian eta honen inguruko lurretan egin nahi da inbertsioa.

BALTEAn %50ko parte-hartzea duela aipatu beharra dago, eta bertze erdian hainbat partikularrek parte hartzen dutela. Horregatik, egiazko jabeen nortasuna isiltzea aski salagarria da, batez ere, egitasmoaren bulkatzaileak bertakoak direla saldu nahi baitute».

«Egiazko jabeen nortasuna isiltzea aski salagarria da, batez ere, egitasmoaren bulkatzaileak bertakoak direla saldu nahi baitute»

Proiektuaren kontrako **BAZTANDARRAK**

Batzarrean egindako herri-galdeketeri ere aipamena egin diote baztandar hauek: «%48ko parte-hartze mailarekin, herritarren %67 lurren birkalifikazioaren aurka agertu zen». Galdeketa hau Udal Planaren aldatetapuntuala hasiera batean onartu zela jakin eta gero egin zen.

«Aroztegiko proiektua ez da baztandarren eskaria, baizik eta kanpoko interesak dira, nahiz eta tartean baztandarren bat edo bertze egon»

Baztango **EZKER ABERTZALEA**

EZKER ABERTZALEA: 'IRUZURRA DA NAGUSI'

Aroztegiko lurretan egin nahi den proiektuari buruz, «iruzurra dela nagusi» adierazi du Baztango Ezker Abertzaleak ohar bidez. «Azken 20 urte hauetan zenbait jardunaldi, bilerak, planteamendu egin dira Baztanen, sozio-ekonomia arloan, proiektu, garapen eta bertze asmoei buruz hausnartzeko, baina sekula ez da Aroztegia bezalakorik aipatu». Udalarik «altxapeka» lurren birkalifikazioa onartu eta urbanizagarri bihurtu izana leporatu dio.

Ezker Abertzaleak «argi» du Aroztegiko proi-

ektuak ez diola Baztango beharrei erantzuten: «ez da baztandarren eskaria, baizik eta kanpoko interesak dira, nahiz eta tartean baztandarren bat edo bertze egon». Lekaroztarrak lurren birkalifikazioari eta proiektuari ezetz erran zietela eta Udalarik aurkeztutako alegazioak ere gogoratu ditu Ezker Abertzaleak idatzian. Udal Gobernuak parte hartzeko aukerarik ez eman izana ere salatu du: «martxoaren 26an Ezker Abertzaleko hautetsiek permuta baten informazioa eskatu zuten, baina ukatua izan da. Zergatik jarraera izkututzailea eta baztertzailea?»

Ezker Abertzalearen irudiko, proiektua eginez gero, «erabat baldintzatuko du Lekarozko bizi-modua, eta neurri batean Baztangoa ere bai. Bizimodua aldatu eta izaera poliki-poliki galduko da, kanpokoen zerbitzura egon eta nahietara egokitu beharko baitugu». Horren aitzinean, eztabaida eta hausnarketa «sakona» eskatu ditu Ezker Abertzaleak: «Nolako Baztan nahi dugu?».

Gaineratu duenez, instituzioetatik kanpo utzi arren, «baztandarren nahia babesteko esku esku lanean» ariko dira.

EGUTEGIAK eta BISITA TXARTELAK

Kartulina berezia 300gr. · koloretan bi aldeetatik · Distira akabera

	100	900	500	1000
Egutegiak-Txartelak	70€	85€	110€	150€

Kulturkari Anduzeta, 12 - 31760 Ebalzar - Tel 948 635 458 - kulturkari@ttiipi.net

Ez hutsik egin eskaintza berezi hauei!

URDAZUBI

HIRIGINTZA → DANTXARINEAKO ZEHARBIDEA

Dantxarineako zeharbideko lanak inauguratu ditu Sanz presidenteak

3,3 milioi inguru gosta da lanak egitea

TTIPI-TTAPA

2007ko urriaren 19an onartu zuen Nafarroako Gobernuak Dantxarineako zeharbidea moldatzeko hitzarmena. Lanak, berriz, apirilean hasi zituzten. Eta zazpi hilabetetako lanen ondoren, akitu dira Dantxarineako zeharbideko lanak. 3.279.486 euro kostatzen dira lanak eta horietatik 2.537.716 euro Nafarroako Gobernuak bideratu ditu.

Zeharbide berriko inaugurazio ofiziala azaroaren 27an egin zen eta horren harira, Miguel Sanz Nafarroako Gobernuko presidentea eta Laura Alba Herrilan, Garraio eta Komunikazio kontseilaria, Begoña Sanzberro Landa Garapen eta Ingurumen

kontseilaria eta Amelia Salanueva Toki Administrazio departamentuko kontseilaria herrian izan ziren, Santiago Villares alkatearekin eta Bartolome Agerre Frantziako Pirinio Atlantikoetako Errepubliketako diputatuarekin batera.

Aitzineko aleetan aipatu bezala, Azysa enpresak egin ditu lanak. Sei biribilgune eraiki dira guztira, eta oinezkoentzako espaloiak ere egin dira. Horrez gain, errepide bazterretan aparkatzea debekatu dute. Aduana aldetik pasatzea saihesteko, *by pass* delakoa eraiki da.

TRAFIKO HAUNDIA

Trafiko handiko tokiak dira Dantxarinea. Nafarroako Gobernutik jakinarazi dutenez, batzuetan bertze 9.772 ibilgailu pasatzen dira egunean, eta horietatik %1,9 astunak dira.



ARGAZKIA: WWW.NAVARRA.ES

Udaleko, Nafarroako Gobernuko eta Pirinio Atlantikoetako ordezkariak zinta mozten.



ARGAZKIA: ONDIKOL

Arrakasta haundiko Kantu Zaharren Eguna

Kantu giro ederrean pasatu zuten Lugarana jatetxean bildu ziren 320 lagunek Kantu Zaharren Eguna. Angel Mariezkurrena eratsundarraren ekimenez, seigarren aldiz egin zen, eta ohi bezala, eskualdetik nahiz kanpotik hurbildu zen jendea. Ahots ezagunen artean, Patxi Sainzen saioa arrakastatsua izan zen, eta *Mahai inguruko kantuen* diskoaren egileek ere abestu zuten, Kiko eta Karmele Gartxitorena eta Jesus Urrutia ondoan zizutela. Antolatzaileek omenaldia eskaini nahi izan zioten Mikel Laboari. Hala, kantari zenaren arreba Karmele eta Begoñari eta iloba Karmeleri lore-sortak eman zizkieten, eta hauek Laboaren idatzi bat gogoratu zuten.

ANZABAL

AGENTZIA



- **Zurich Asegururak**
Autoa, etxebizitza, istripu eta bitzitza aseguruak
- **Lan aholkularitza**
Nomina eta Aseguru Sozialak
- **Aholkularitza fiskala**
Errenta Deklarazioa, BEZA...
- **Inmobiliaria**
Baserrak, bostak, preu, etab... salmenta eta alokairua
- **Gestoria**
Bitxigailuen transferentziak, gidaletzeko kanpoaren berritzea eta edozein giako gestioak

Santiago, 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580 804
anzabal@anzabal.com

MONTXO OSTATUA



Dantxarineatik
2 km-tara

TABAKO-DENDA
ANZAN-BORDA - URDAZUBI

Egunero Irakia 10:30etik 02:30era

UDALA → AZPIEGITURAK

Depuradorara doan bide berriko lanak akitu dira

Bide berria egiteak 167.400 euroko gastua eragin du

TTIPI-TTAPA

Irailean hasi ziren depuradorara gateko bide berria egiten, eta gaur egun ia finituta dagoela erraten ahal dugu. Bide berri hau egiteko arrazoina, hilabeteetan bitan errebisioa eta garbitasuna egitera etortzen diren langileen kamioia ezin zela sartu izan da, orain arte ibili diren Oierregia-ko tartekatik ez zen pasatzen, alegia.

Hori dela eta, Nafarroako Toki Azpiegiturak NILSA enpresa publikoak berak bere gain hartu zuen bide berri hau irekitzea. Lan hauek 167.444,34 euroko gastua izan dute.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

'Momentu ridikuluen' kontura irriz

Hazilaren 21ean Udazkeneko Birako ikuskizun bat Zugarramurdira ailegatu zitzaigun: En la lona taldearen eskutik, *Momentu ridiccoli* antzerkia ikusteko aukera izan genuen. Hainbat «momentu ridikulo» ikusten irriz eta gustura aritu ziren gure haurrak.



ARGAZKIA: MARGARI ETA KORO

Saio berri bat grabatu dute herrian

Urtarrilan ematen hasiko diren programa berri baten kapitulu bat grabatu zen gan den azaroaren 29an Zugarramurdiran. Programa honetan turismoa eta gastronomia uztartzen dira eta izena *Un pais para comerselo* du. Aurkezle lanetan bi aktore famatu ari dira: Juan Etxanobe eta Imanol Arias. Zugarramurdi-koa finitua ondotik Bertizera abiatu ziren.

Zure beharren arabera opari-sortak prestatzen ditugu
(ohea+gosaria, tratamenduak masajeak, ibilbide termoa ludikoak...)

Oparitu ongizatea, oparitu osasuna

Eguberri hauetan izan originala eta oparitu Balneario Elgorriaga

ELGORRIAGA
BALNEARIO BAIÑURRI

Egin zure erreserba www.balnearioelgorriaga.com, reservas@balnearioelgorriaga.com edo 948 45 60 45ean.
Bezeroarentzako arreta orduak: asteleheneetik ostiralera 9:00-13:00 eta 16:00-20:00

SENPERE

KULTURA → ESKUAL KULTURA SUSTATZEN

Kantu xaharren bilduma berria plazaratu du Oxtikenekoak elkarteak

Bi diska kaleratu ditu, 36 eta 25 kanturekin

Franck DOLOSOR

Badira urteak Oxtikenekoak elkarteak lanean dabilela eskuara eta eskual kultura sustatzeko gure herrian. Butrun auzoan den Oxtikenea etxea erosi eta xaharberri eta, kultura sail aberatsa egin du batasun hunek, bertzeak bertze, mintzaldiak, ihaute-riak, oturuntzak eta suak Jondoni Joaneren besta kari. Kantu xaharren bazkariak ere apailatu dituzte eta egun goxo horietan grabatu diren doinuak disketan bildu dituzte.

Duela guti, azken bi diskak plazaratu dituzte. Batean 36 kantu daude,

eta bertzean 25. Obra horiek guziak azken hamar urteetan ospatu diren kantu xaharren bazkarietan bilduak eta grabatuak dituzte. Balio haundiko kantak dira, batzuek galtzeko arriskua baitzuten eta bertze batzuk kopia bakarrekoak direla emanak dira diska hortan, funtsean bazkarietan gertatzen den bezala. Senpereko ahozko ondarearen parte bat biltzen eta agertzen duten diska hauek Lekuona eta Elkar saltegietan eros daitezke.

ESKUAL KANTUAK

Azken hamar urteotako kantu xaharren bazkarietan bildutako kantuekin osatuak dira bi diska hauek.



ARGAZKIA: FRANCK DOLOSOR

Ahozko literaturaren biltzarretan, jende multzo ederra biltzen da. Gisa huntako azken besta 2008ko buruilean ospatu zen Amotzeko Larraldean.

Senpertarren lanak Durangoko azokan

Berriki ospatu den Durangoko euskal liburu eta disken azoka haundian senpertarren lan andana saldu da aurten. Liburu berriena *Otso gosetua* da, Amaia Hennebutte ibarrundarrak idatzi duena haurrentzat. Amaia andereñoa da eta izigarri gustatzen zaio idaztea eta margotzea etxeko tikienezat. *Panso* eta *Lodikroko* apailatu zituen duela zombait urte eta orain abentura berriak asmatu ditu *Otso gosetua* liburuan.

BARBIER-EN BIOGRAFIA

Bere aldetik, Henri Duhauk Jean Barbier erretorren biografia aurkeztu du Bidegileak sailean. Senpereko eta garzarraren argazkiz betea den liburuxkan, Duhauk erakusterat ematen du Bar-

bier euskal idazle haundienetik bat dela eta Euskal Herria itsutuki maitatu zuela. Barbier-ek egin idazlanen zerrenda osoa agertzen da bai eta Gerla Haundia denboran izan zuen jarrera ere. Duhauk gogoratzen du erretora etxez etxe ibiltzen zela, Paxkal Lahet Juzan orduko auzapezarekin hilen berri ematera. Duhauren liburuan ikasten ahal da, konparazioan, 1914an, 2.500 herritar bazirela Senperen eta orotarat 400 gizon gan zirela gerralat. 72 senpertar suan hil ziren, zazpi etxetan bi hil izan ziren eta batean

hiru! Bertzalde, 200 kolpatuak izan ziren. Liburuxka zinez baliosa Barbier-en lana ikasteko begi kolpe batez. Eta Duhau ez da geldirik egoten, ondoko egunetan Dominique Dufau Senpereko auzapez eta notario euskaltzalearen biografia argitaratuko baitu. Zaldubi kanjojeraren lanekin ere burubelari ari da eta laster sail huntako laugarren liburukia plazaratuko du.

'SENPERETIK SENPERERA' ETA OLERKIAK

Azokako erakusmahaien artean *Senperetik Senpererat* 18 herritarren oroitzapen bilduma eta Auxtin Zamoraren olerkiak ere ikus zitezkeen. Sekula ez bezala, herritarren lanek toki zabal izan dute Euskal Herriko kulturaren hitzordua haundienean.

HENRI DUHAUREN LANA

Jean Barbier erretorren biografia idatzi du Henri Duhauk, eta herriko hainbat kontu ageri dira liburuan.

LEURTZA ABENTURA

Puzgariak festetarako
Segway - BTT
LASER paintball
Despedidak
Eskolarrak

tel. 948 59 20 97
mug. 620 37 96 42
www.leurtza.com

EDARIAK

MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa, 76 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel. Fax: 948 63 10 27

DIRU BILKETA → URRITASUNA DUTENENTZAT

2.600 euro bildu dituzte Telethonarentzat

70 lagun upatu dira Larrunera eta iaz baino 200 euro gehiago bildu

Xan HARRIAGUE

Krisiak krisi, iaz baino 200 bat euro gehiago bildu dituzte urritasunak dituzten pertsonen laguntzeko eta haien eritasuna ikertzen segitzeko. Herriko hiru eskolek, Urtxintxa eskubaloi taldeak, Zazpiak bat dantza taldeak eta Turismo Bulegoak antolatu zituzten ekitaldiei esker 2.600 euro bildu dituzte.

70 bat lagun upatu dira Larrunera trenarekin. Aroa lagun zutela bista ikaragarria izan zuten.

Pastisen salmentak ere ederki funtzionatu zuen, horri esker 300 bat euro bildu baitzituzten. Jadanik hitz hartu dute heldu den urtean biekitaldi horiek eginen dituztela. Dantza ikastaroek arrakasta guttiago izan dute, eta heldu den urtean saltsa ikastaroa eskaintzea pentsatzen ari dira.

Olentzero

